



Mindegiatarrak txapeldun

Apustu ikusgarria → 49

## Ezkontza

Gehigarri berezia → 11-23

### BERA → 24

Gure Txokoa Elkartearen etorkizuna kolokan

### TELEBISTA → 37

Mugarik gabeko telebista kanpaina maiatzera arte

### BAZTAN → 42

Emaztekien jardunaldiak ortziraletik aitzinera

### URDAZUBI → 44

Zeharbidearen esleipena bertan behera

Bizitzak «inoiz» eman dion «kolperik handiena» hartu zuen Patxi Vila txirrindulariak 2008ko maiatzean, kontrol batean testosteronarekin positibo eman zuenean. Jakin gabe, kutsatutako aminoazido batzuk hartu zituen baina, azkenean, epaitegiak arrazoia eman dio eta zigorra murriztu egin diote. Pasa den azaroaz geroztik talde bila dabil.

KIROLA → 48

## «Ilusioz eta gogoz nago profesionaletan berriz lehian hasteko»

Patxi VILA | Berako txirrindularia



### ERREPORTAJEA → 4-5

#### Amuarrainen arrantza hirugarren aldiz debekatua Nafarroan

«Espezieak babesten segitzeko» aurtengo denboraldian ere ezin izanen da amuarrainik arrantzatu. Horrez gain, izokinen denboraldia maiatzaren 1era giberatu du Nafarroako Gobernuak Ingurumen eta Landa Garapen Departamentuak.




ARGAZKIA: GOIKO



### ELKARRIZKETA → 3

#### Emakumeen Martxa Leitzan barna

Emakumeen Mundu Martxaren Euskal Herriko itzulia hilaren 12an Leitzan izanen da



### LANA → 10

#### Mobilizazioak Zalaingo Condesa lantegian

Etorkizun duinaren alde, manifestazioa egingen dute ortzegun honetan Gasteizen.

**ORAIN DA UNEA  
IMAGINA EZAZU ZURE ETORKIZUNA  
HASI ETORKIZUN HORI ERAIKITZEN.  
AMETS BAT BADUZU  
SAIATU BEHAR DUZU.  
ZERBAIT NAHI BADUZU  
ATERA ZAITEZ BERE BILA.  
ETA KITO.**

**LHn zuk aukeratzen  
duzu zure bidea**

**AURREINSKRIPZIOA EGITEKO EGUNAK**

Golko eta Erdiko Maila

**MARTXOAREN 2 TIK 9RA**

**2012** ZUREKIN  
BAGOAZ AURRERA

 Nafarroako  
Gobernua

  
NAFARRUA  
lanbide heziketa



Emakumeen Mundu Martxa prestatzen ari da Leitzako Bilgune Feminista burubelarri. Izan ere, nazioarteko martxa horren errelebo ibilbidea egingen da martxoaren 8tik 13ra

Euskal Herrian eta tartean, hilaren 12an, Leitzan egingen du geldialdia. Aukera aprobetxatuz, martxari buruz eta emakumeen egoeraz mintzatu gara Saioa Iraola

Leitzaldeko Bilgune Feministako kidearekin. Duela lau urte sortu zen bilgunea, eskualdean «hainbat arlotan ikuspegi feminista txertatzearen beharra» zegoela ikusita.

Saioa IRAOLA | Leitzaldeko Bilgune Feministako kidea

# «Aldarrikapen eta eguneroko lanaren bidez, gure egoera aldatzen ari gara»

G. PIKABEA | LEITZA

**Azken hamarkadetan emakumegehiago nabarmendu da, baina oraindik ere desberdintasunak badira...**

Aldaketak izan diren arren, aldaketa hauetan mugimendu feministak egingo dako lana nabarmendu behar da; finean, bizi garen jendarteak botere harreman hierarkikoetan du oinarria. Harreman hauen baitan sistema oso bat sortzen da; sistema ekonomiko, politiko zein soziala. Baina pixkanaka, aldarrikapen eta eguneroko lanaren bitartez, emakumeok gure egoera aldatzen ari gara.

**Zein gabezia ditu emakumeak Leitzaldean?**

Gabeziak ugariak dira baina guk Mundu Martxari begira prekaritatearen gaia lantzea erabaki dugu. Alde batetik, eskualdean ordaindutako lana eskuratzeko emakumeek dauzkagun zailtasunak salatzeke, hor daukagu Sarriopapeleko kasua. Bestetik, urteetan eta egun emakumeok egiten ditugun zaintza lanak bisibilizatu eta baloratu nahi genituzke. Eta, bide batez, egungo jendartearen biziraupenerako duten garrantzia azpimarratu. Horrez gain, *zaintzen globalizazioa* deitzen zaionaren ondorioz, emakume etorkinek zaintza lanetan hartu duten ardura ere ezaguta-



UTZITAKO ARGAZKIA

Saioa Iraola, aurtengo Emakumeen Mundu Martxako txostena eskuan duela.

raztea interesgarria litzateke. Leitzaldean, zaintzan aritzen diren etorkinak badaudenez beraiekin lanketa bat egin nahi dugu. Bideo bat osatzen ari gara Leitzaldeko emakumeen errealitatea ezaugarrazteko.

**Zer da Emakumeen Mundu Martxa?**

Dimentsio globala duen ekimena da, 10 urteko ibilbidea bete duena. 2000. urtean ospatu zen lehenengo aldiz. Orduko hartan, pobrezia eta emakumeon kontrako indarkeria ikusgarri bihurtu eta hauen aurrean neurri-

## HELBURUAK

«Mundu Martxari begira prekaritatearen gaia lantzea erabaki dugu. Alde batetik, eskualdean ordaindutako lana eskuratzeko emakumeok dauzkagun zailtasunak salatzeke (...) Bestetik, urteetan eta egun emakumeok egiten ditugun zaintza lanak bisibilizatu eta baloratu nahi genituzke».

errealak hartzeko beharra azaleratzea zen helburua. Mobilizazio andana burutu ziren mundu osoan martxoaren 8tik urriaren 17a bitarte; Emakumeen eskubideen aldeko Nazioarteko Eguneetik Pobreziaren Nazioarteko Eguna arte. Bost urtean behin mobilizatu eta data hauek hasiera eta amaiera mugarriz hartzea erabaki zen. 2005-ekoa benetan berezia izan zen, mundu mailan errelebo bidezko ekintza bat egiteaz gain, Munduko Baloreen Karta adostu baitzen 2.500 herrialde-

tako 4.000 emakume talde baino gehiagoren artean. Euskal Herriak errelebo propioa izan zuen, estatu gabeko herrialde independentetzat onartu baitzen. 2010ekoaz berriaz, erronkaz jositako Mundu Martxa irudikatzen zaigu eta ekimen internazionalak ugariak izango dira martxoan. Horien artean, emakumeen jantzien munduko bilduma bat osatu nahi da.

**Lau arretagune nabarmendu nahi dituzue martxan. Azaldu...**

Alde batetik, *denentzako onura dakarten aberastasun publiko eta komun zaintza*. Hauen artean dira ur edangarria, elikadura subiranotasuna, osasunerako eskubidea...

Bigarrenik, *bakea eta demilitarizazioa*. Emakumeak gara edozein gatazketan eraginik latzenak pairatzen ditugunak. Hirugarrenik, *emakumeen lana*. Eskubide osoz eta diskriminaziorik gabe bizitzeko aukera izatea. Ea azkenik, *emakumeen kontrako indarkeria*; gure jendartearen gertatzen den giza eskubideen urraketa larrienetakoa eta hedatuenetakoa da. Emakume izateagatik jasaten dugun biolentzia oroz ari gara: sexu erasoak, prostituzio behartua, lantokietako sexu-jazarpena...

**Elkarrizketa osoa: [www.ttipi.neten](http://www.ttipi.neten).**

ARRANTZA → IZOKIN ETA AMUARRAIN DENBORALDIA EZTABAIDAN

# Amuarrain arrantza debekatu eta izokinena maiatzera gibelera du Gobernuak

Hirugarren urtez segidan debekatu du Nafarroa iparralde osoan amuarrainak arrantzatzea

Amuarrain gutti dagoelako, hirugarren urtez segidan, horien arrantza debekatu du Nafarroako Gobernuko Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuak. Baina 2011n baimenduko duela iragarri

du, hori bai, kontrol neurri batzuk ezarritik. Neurri guztien artean debekua da eztabaidatuena, baina ez bakarria, izokinena arrantza denboraldia apiriletik maiatzera gibelera baitu.

## G. PIKABEA | ESKUALDEA

Nafarroa iparralde osoan galarazi du Nafarroako Gobernuak amuarrainen arrantza, «espezia hau berreskuratzen segitzeko». Horrela arazoitu du Begoña Sanzberro Ingurumen Departamentuko kontseilari baztandarrak aurtengo debekua. 2007arekin alderatuz, amuarrain kopurua %15,35 igo dela jakinarazi du, baina oraindik ere «nahi baino beherago» omen dago. Gobernuak utzitako datuen arabera, batzartze 1.886 amuarrain dago hektareako, eta ez da nahikoa: «2.000 eta 4.000 artean beharko litzateke».

Dena den, hiru urtez galarazi ondok, heldu den urtean amuarrainen arrantza baimenduko duela iragarri du, baina oraindik zehaztu gabe dauden kontrol neurriak finkatuz, errekan sartzen den izokin kopuruaren arabera. Horretarako Ingurumen Saila bilerak egiten ari da arrantza elkartetako ordezkariekin, eta

lehenbizikoa otsailean egin bazen, bigarrena hilabete honetan edo hurrengoan egitekoa da.

Debekua, ordea, ez da arrantzaleen gustukoa. 1.040 bazkide dituen **Baztango Ehiza** eta Arrantza Elkartean, adibidez, «arrunt gaizki» ikusten dute, Joseba Moreno lehendakariak azaldu digunez. «Arazorik haundiena ez da amuarrainena, kudeaketarena baizik». Bere irudiko, «azken 20 urteotan kudeaketa desastrea izan da. Batek, ez dituzte lehen bezala botatzen arrantzak eta arrainak, eta bertetik, gero eta lertxun gehiago dago eta horiek hiltzea debekatu dago eta amuarrainei erasotzen diete». Iruñeko arrantzaleez ere ez da atzenu: «arraina hartu eta gero botatzeko etortzen dira, eta horrek ez digu mesederik egiten».

420 bazkide dituen **Berako Ehiza** eta Arrantza Elkarteko lehendakaria da Juan Otamendi eta beretzat ere «normalena

arrantzatzea» izanen litzatekeela iritzien artean, debekua «onartzen» duela aitortu digu. Bere hitzetan, «azken urteotan bezala arrantzan segituz gero, amuarrainak denbora guttirako izanen ziren. Garai batean, errekan lautik hiru arrantzatu gabe gelditzen zen, eta amuarrainak defendatzeko aukera gehiago zu-



2011ko denboraldia nola izanen den eztabaidatzen hasiak dira dagoeneko. Kontseilariaren bildu ziren arrantzale elkartetako ordezkariak, tartean, Berako

en. Gauregun, berriz, metodo berriekin arrantzalea erreka osoan ibiltzen da eta astakeriak egiten ditu». Halere, Morenok bezala, Administrazioaren erabakiak kritikatu ditu: «Ingurumen Saileko teknikarien neurriak txarrak izan dira, emaitza onik utzi ez duten debekuak baino ez dira egon». «Oztopoak jarriz, Gober-

nuak pixkanaka jendeak ez arrantzatzea nahi duela» pentsatzen du Jose Ramon Jimenez **Goizuetako** arrantzaleak. Eta horrela, euren ttitikatik ezagutu duten «kultura» galdu egingen delakoan dago. Gobernuaren kudeaketa ere salatu du: «beste gauzei eman diekute lehentasuna, eta es- kutik joan zaie arazoa. Ez



ESALDIA

«Ingurumen Sailak diru aunitz du, baina inbertitzen asmatu behar du»

Juan OTAMENDI  
Berako arrantzalea



ESALDIA

«Arazorik haundiena ez da amuarrainena, Gobernuaren kudeaketarena baizik»

Joseba MORENO  
Baztango arrantzalea



ESALDIA

«Denak trabak dira, baina arrantzalea ez da errekarik min egiten diona»

J.R. JIMENEZ *Jimmy*  
Goizuetako arrantzalea





ARGAZKIA: WWW.NAVARRA.ES

neko. Hala, otsailaren 19an Begoña Sanzberro Ingurumen Departamentuko Berakoak, Baztangoak eta Goizuetakoak.

dute ongi kontrolatu, ez dute birpopulatu... Eta emaitzak ikusi dira». Arazoaren errua Gobernuari egotzi dio: «beste alorretan 'politika' egiten ibili da, hau da, inbertsioak beste alorretan egin ditu arrantzak ez dielako ezer ematen. Gaineratu duenez, «debekatu zenetik hiru urte pasatu dira eta datuak arrunt txarrak izandu dira». Argi azaldu du bere ondorioa: «ez du ezer lortu. Diru gutxi gastatu dute eta gu gure afizioarekin gozatu ezinik».

Debekuen eraginez, Goizuetan arrantzarako afizioa galtzen joan dela ere nabarmendu digu. 200 bazkide ditu egun Ehiza eta Arrantza Elkar-teak, baina horien artean arrantzarako afizioa ez omen da haundia: «oztopoak jarri ditu eta jendea desanimatu egin da».

#### PRESAK EZTABAIDAN

Presak botatzeko errebakia kritikatu du bere aldetik Baztango lehendakariak. Urkonfederazioaren aginduz, erreken

egoera hobetzeko eta uholde arriskuak saihesteko presak kentzen ari dira. Morenorentzat «ehun urte edo gehiago badituzte presa horiek eta lehenago arraina baze goen». Gainera, «espezie erasotzaileak ez etortzeko oztopo izan dira, adibidez, pazifikoko karramarroa». Presak mantentzearen aldekoak dira, eta hortaz egin zituzten Lekarozko presarienguruan txostena eta Oharrizko presa ez botatzeko eskaera.

#### BIRPOPULAZIOA: 'EZ DA NAHIKOA'

2008-2009 denboraldiko birpopulazioaren datuak ere eman ditu Ingurumen Sailak. Hala, amuarrainen kasuan, 242.000 arrautza eta 130.000 amuarrain tiki botaziren. Eta izokinetan, 132.200 alebin eta 71.000 pinto. Arrantzaleentzat, baina, aski ez. «Datuek erakusten dute egiten duten birpopulazioarekin ez dela deus lortzen», dio Morenok. «Ornoz-Mugairiko

#### ALDAKETAK IZOKINEN ARRANTZAN

## Maiatzaren 1ean hasiko da izokin denboraldia Bidasoan

Garai batean, otsailean hasten zen izokin denboraldia. Gero, ordea, martxo lehen igandera aldatu zen, eta hirugarren igandera beranduago. Azken urteotan apirilaren 1arekin hasi izan da, baina aurtan maiatzaren 1era gibelatu dute. Kupoa ere jau-tsi dute, 60tik 20ra. Honen harira, zera erran digu Otamendik: «urte bate-rako baldin bada, tira». Baina maiatzean zabaltzea «exajeratua» dela aipatu digu, «azken 30 urteotan datuek batzertze martxotik maiatzera hiru izokin arrantzatu direla diote, baina maiatzera arte gibelatuta, errekarajoateko askatasuna kentzen digute». Morenoren hitzetan martxoa da hilabete onena: «arrainak badau-

de eta ura ere bai». Edonola ere, maiatzaren 1ean hasi eta uztailearen 18an bukatuko da denboraldia, aitzinetik 20 aleren kupoa gaintzen ez bada.

Kupoa 1988an ezarri zen lehenbiziko, eta geroztik arrantzatu den kopururik altuena 2001ean egin zen, 69 guztira. Jakingarri gisa, aipatu, 1944an 302 izokin arrantzatu zirela eta 1982an bakar bat ere ez.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

laz, Bidasoako lehen izokina Ernesto Gaintzak harrapatu zuen.

hikoa», dio Otamendik: «Ingurumen Sailak diru aunitz du baina inbertitzen asmatu behar du eta ez du ongi egiten. Arrantza elkarrekin diotena kontuan hartuz, aunitz ikasiko luke».

Urumean ere «gutxi» birpopulatzen dela erran digu Jimenezek, «ezer ez». Horrez gain, arazoaren gibelean hainbat faktore daudela aipatu du: «errekak ur gutxiarekin heldu dira, zentralak ura hartzen ari dira baina ez dute gutxieneko ura botatzen, ezkutuko ehiza ere asko egiten da, amuarrainak jaten dituzten piztiak ugaritzen ari dira...».

#### URAREN KALITATEA ETA KOPURUA

Uraren kopuruaz eta kalitateaz mintzatu zaigu beratarra, ibaian arrainak izateko beharrezkoak diren bi ezaugarri, alegia. «Kalitateari dagokionez, Bidasoan orain 15 urte baino hobeki» dagoela us-

te du, «lehen enpresek ez baituzten oraingo kontrolik». Baina kopuruak kezkatzen du Otamendi. «Bidasoari ibaiadarrak kentzen ari gara eta hori larria da». Gaineratu digunez, «Bera inguruko ibaiadar eta iturburu guztiak hartuak dira, eta orain Bera eta Lesakako ur arzoak hornitzeko berte bi erreketatik ura hartuko dela jakin dugu eta gu horren kontra gaude». Beratarren arabera, horrek Bidasoari aberatasuna kentzen dio: «ur fresko eta garbi hori gabe, Bidasoaren tenperatura 24 gradutara igotzen da, eta tenperatura horretan, amuarrain eta izokinak bizirautea zaila da. «Errekaren etorkizuna, uraren kopuruan eta kalitatean dago».

Jimenezek, berriz, argi du ez dela arrantzalea kaltea eragiten duena: «dena traba da, baina arrantzalea ez da errekarari min egiten diona».



**Nire txanda**  
Fernando ANBUSTEGI

## Gora ultraeskuina!

Lasai, ez naiz erotu. Irakurlearen arreta deitze-ko titulua da, bertzerik ez. Edo bai? Zer pentsatuko zenukete zuen herriko Udalak nazi bati ipurdia milikatuko balio? Eta Txileko agintari ultraeskuindar bati? Bada, horixe bera egin du Baztango Udalak Sebastian Piñerarekin, ahobatez purdie miliketu. Zergatik ote? Piñera politikaria delako? «Baztandarra» delako? Ez dut uste, izan ere, agintaldi honetan bertze bi baztandar politikan jarduteagatik jazarriak izan dira, eta Baztango Udalak ez du deus erran

**Agintaldi honetan bertze bi baztandar politikan jarduteagatik jazarriak izan dira, eta Baztango Udalak ez du deus erran**

**Ezpala**  
Aitor AROTZENA

## Emakumearen Eguna?

Behar al da Emakumearen Eguna? Egia al da lan bera egiteagatik emakumeek %25 guttiago kobratzen dutela? Edo gizasemeen bortizkeriak hainbertze heriotz eragiten dituela? Amaginarreba nire seme-alabak zaintzen, ama lanerako nire arropa garbitzen eta emaztea nire bazkaria prestatzen ari diren bitartean, *footing* egiten ari naizenean etortzen zaizkidan galderak...

## Nabarmentzekoak



Pedro ESARTE  
Elizondoko idazlea

Juan Rena, *clave en la conquista de Navarra (1512-1538)* liburua argitaratu eman du Pamielarekin. Nafarroako historiarantzalean mugitu zen pertsonaia honi buruzko jakingarriak eman ditu.



Idoia MARITXALAR  
Lesakako kirolaria

Ikasketa eta lanagatik Gasteizko Badaioz sokatira taldean ari da Idoia. Euskadiko txapel-dun izan da eta berriki Italian jokatu den Munduko Txapelketan ere dominak lortu zituen.



Julen UHARTE  
Urdazubiko motor gidaria

Espainiako Cross Country Txapelketan sailkapen buruan dago senior B mailan, Guadalajaran nagusitu ondok. Azken proba martxoaren 7an izanen du Huelvan.

Atzera begira → 1996.03.07 / TTIPI-TTAPA 177. zbk



## Mikel Goñi 18 urterekin debutatu zuen, 1996an

1996ko otsailaren 17an Tolosan debutatu zuen profesionaletan Mikel Goñi pilotari oronoztarrak eta astebete beranduago lortu zuen lehen garaipena. 18 urterekin, uste baino lehenago ailegatu zitzaion urratsa emateko aukera, Asegarceren eskutik. Goñi II.ak aipatu zuenez, «afizionatuetan erretzeko beldurrez pasatu naute profesionaletara. Asegarcerekin entrenamenduak egiten ari ginen eta uste ginuen udaran debutatuko genuela». Partiden gogortasuna nabarmendu zuen oronoztarrak: «Jubeniletan ordu erdi batez bukatzen da partida eta orain badira ordu eta ordu eta kuartoko partidak ere».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR  
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredaktore burua Gurutze Pikabea Publizitatea Usoa Vicente, Kulturkari SLU Berriemaileak Esteban Arotzena, Juana Mari Sazar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Aranbxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria...

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

### 2010eko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	.....37€	Europa	.....55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	.....31€
Ipar Euskal Herria	.....55€	Amerika eta Australia	.....123€	Leitza	.....15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

## Lan erreforma berria, berriz ere langileen bizkar

Koldo SAENZ (LAB)

S arri entzuten ari gara lan erreforma aukeztu dela Zapateroren gobernuak kongresuan. Bertzenbat aldiz entzun dugu 2010. urtean krisi ekonomikotik aterako ginela? Burla bat krisia pairatzen duten langileentzat. Bi ardatz dituen lan erreforma bat aurkeztu zuen kongresuan, ondotik sistemaren sindikatu diren UGT eta CCOOek negoziatzeko. Bi zutabe ditu erreformak; pentsioen erreforma basati bat, eta bertzetik lan baldintzen erreforma bortitza. Jubilatze adina 65 urtetik 67ra atzeratu eta pentsio bat lortzeko baldintzak gogortu nahi ditu. Lotsagarria banketxe eta enpresariei eman dien diru gutzia pentsionistei kendu nahi izatea. Erreforma hau gezurre-

«Bi zutabe ditu erreformak: pentsioen erreforma basatia eta lan baldintzen erreforma bortitza»

an oinarritzen da, jendartearen zahartzea argudiatzen dutelako pentsioen sistema sostengaezina dela argudiatzeko. Baina aurten 8.500 milioi euroko superabita egon da! Beraz ez dago neurriok hartzeko arrazoi ekonomiko edo sozialik. Lan erreforma bortitza planteatzen du gobernuak. Ikusirik erretiro adinaren atzeratzeak sorturiko zalaparta, Espainiako Gobernuak lan erreformaren testua leundu egin du. Baina helburuak berdina izaten segitzen du: langilieriaren eskubideak gehiago murriztea. Erreforma hori honako neurrien bidez egin nahi dute; kaleratzeengatik kalte-ordainak merketzea, lanaldi partzialeko kontratuak hedatzea, ETT-en jarduera-eremua zabaltzea, baja medikuen gaineko presioa areagotzea eta lan erregulazioak erabiltzeko txeke txuria ematea patronalari (oraindik gehiago!). Beti bezala UGT eta CCOOek proposamena ontzat hartu dute eta gure eskubideekin salerosketan aritzeko prest daude. Honen aurrean zer egin dezake euskal langilieriak eta bereziki momentu gogorak jasaten ari den Baztan-Bidasoako langilieriak? Mobilizazioa eta borroka dira egoera honeri aurre egiteko modu bakarra. Patronalari, gobernuari, eta sistema hau sostengatzen duten alderdi politiko nahiz sindikalei, ezetz erran behar diegu, ez gaudela prest berriz ere dena irensteko eta nahikoa dela. Urteak daramazkigu gure lan baldintzak nola okertzen diren ikusten, eta orain guk sortu ez dugun krisi bat ordain arazi nahi digute, nahikoa da! Ezin dugu denbora gehiago horrela segitu eta aldaketa behar dugu, sakoneko aldaketa politiko eta soziala. Ezin dugu minutu bat ere Espainiaren eta bere nazio nahiz klase interesak lotzen dituen legediaren menpe egon. Euskal Herriko langileok ez dugu kapidarik hor, eta joku arauak aldatzea da modu bakarra. Beraz, kalera aterako gara langilieriak behar duen erreforma sakona aldarrikatzera; hitza eta erabakia emanen digun erreforma, eta herri hau egiten duten gizon-emakumei lan eta pentsio duinak bermatuko dizkien erreforma.

## Bortzirietan murrizketa handiak euskararentzat

Pello APEZETXEA (Bortz herrietako Euskara Batzordeak)

O nartu dira, azkenik, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen 2010eko plangintza eta aurrekontua. Azaroan hasi eta lau bilera behar izan dira horiek onartzeko. Hori gaitzerdi litzateke azkenean plangintza eta aurrekontu duinak onartu izan balira. Baina ez da hala izan, Batzorde Erabakitzaileko kideen gehiengo murrizketa handiak egitearen alde agertu baita; hain zuzen, EAJko hiru ordezkariak eta Aralarkoa. Mankomunitatearen iturri nagusia bortz udalek paratzen duten dirua da. Hartu duten erabakiarekin, bortz udalek 2009an paratu zuten kantitatea baino % 35 gutxiago paratuko dute; hau da, ia baino 100.000 euro inguru gutxiago. Herrietako euskara batzordeetako kideok egiten dugun balorazioa honakoa da:

«Euskarak lehentasunezko gaia izan behar du udalentsat, baita egoera ekonomikoa txarra denean ere»

- Murrizketen arrazoa krisi ekonomikoa omen da. Baina udalengan arlo gutxitan egin dituzte tamaina horretako murrizketak. Udalek euskarak aspaldi bizi duen krisia kontuan hartu beharko lukete.

- Euskarak lehentasunezko gaia izan behar du udalentsat beti, baita egoera ekonomikoa txarra denean ere; zenbait alderdientzat euskara ez da lehentasuna.

- Lehentasunezko egitasmoak bertan behera uztea proposatu dute (errate batera, Bai Euskarari). Diru laguntzak ere murriztu dituzte: batzuei kantitate txikia kendu zaie (Ttipi-ttapa, Xorroxin eta Bertso Eskola), bertzei eskatutako gutzia (Labiaga Ikastola, Nafarroa Oinez, Herri Urrats, Etxetik Plazara...). Nafarroako Gobernuak kendu dituen laguntzak gutxi balira bezala, orain hemengo erakundeak (guztiak alderdi abertzaleen esku) hasi dira dirua kentzen.

- Eta, azkenik, larriagoa iruditu zaiguna, zenbait udal ordezkariaren jarrera. Bileretara aitzinetik erabakitako diru kantitateekin joan dira, eta eztabaida zenbaki hutsetara mugatu dute, mankomunitatearen beharrak aztertu gabe. Bide horretatik segituz gero, mankomunitatearen izaera deuseztatzeko arriskua dago. Izan ere, paratu beharreko dirua aitzinetik udaletan erabakitzen badute, zertarako dago mankomunitatea?

Mankomunitatea tresna eraginkorra eta baliagarria da Bortzirietan euskara normalizatzeko. Etorkizunean ere hala izatea espero dugu; horretan, udalek badute zer errana. Horregatik, euskara batzordeetako kideok hau eskatzen diegu udalei:

- Mankomunitatea Bortzirietan euskararen aldeko lan bat egiteko erakundea da. Horrek alde guztien arteko gutxieneko adostasuna eskatzen du, eta udalek aldeko giro hori lortu behar dute, berehala.

- Euskararen normalizazioan pausok emateko, baliabideak jarri behar dira. Epe labur batean, gutxienez 2009ko aurrekontuetako kopuruak berreskuratu behar dira.



## Irakurleak mintzo

## Funverako greba

Jose Mari TELLETXEA  
47 kaleratuetako bat

Egun batetik bestera lanik gabe utzi naut. Hau saihestu nahian eginiko borroka, mobilizazio nahiz greba, ezerezean gelditu dira. 53 egun greban pasatu ondoren ez da ezer lortu, ezertxo ere ez. Inpotentzia eta frustrazioa besterik ez zaizkigu gelditu.

Prozesu luze honekin ELAk, Funverako komiteko gehiengoarekin -7 ordezkari ditu LABek 2 besterik ez-, bere burua hedabideetan promozionatu bakarria egin du. ELAren ustetan lortu den emaitza «duinak» 47 langile lanik gabe gelditzea suposatu du. Emaiza hau hasierako helburuekin konparatuz gero, hau da kaleratze bakar bat ere ez egotea, «duintzat» hartzea jendeari burla egitea dela iruditzen zait. Kaleratzeez gain, aipatu diren beste puntuekin ere ez gaude konformatzeko moduan. Errelebu kontratuari dagokionean, konbenioak dioenari jarraituz enpresak duela ia urtebete eginak behar zituen jada; beraz, esan dezakegu hau ere ez dela inolako lorpena. Hitz egin dezagun ere kanporatuak birkokatzeke enpresak hartu duen arduraz... Enpresak dio: 2010 eta 2013 urteen artean langile gehiago kontratatzeke beharra egongo balitz espeditentia pairatu dute-

nek izango dutela lehentasuna, kito. Hau ere edonori barregura emateko moduko «lorpena» da.

Bere burua garbitu nahian ELAk behin eta berriro aipatzen du plantilla bera izan dela bozketaren bidez lanera itzultzeko erabakia hartu duena. Bi hitzetan azaldu nahi nizuke nola izan den bozket hau. Lehenik eta behin erran behar da bozket egiteko deialdia ELAren eskutik etorri zela. Enpresak berehala lanean hasten ez baginen bezero onenari bat galtzeko arriskua zegoenarekin mehatxatu ostean azaldu zuen ELAk bozket egiteko nahia. Asanbladak zein ELAko afiliatuek ez zutenez diskurtso hau begi onez ikusi atzera egin zuten, baina une labur batez soilik. Barne lanketa egin ostean azkenean bozket egitea erabaki zuten lanera itzultzeko. Baina bozketaren emaitza ez zen loturapekoa izan -informazio hau aski isilean gorde dute-. Lanera itzultzea izan bazen ere aukera bozkatuena, ez zuen legeak dioen bozka kopurua lortu (bozkatzeke eskubidea zeukatenaren erdia gehi bat alegia), beraz, ELAk komitean duen gehiengo erabiliz greba bertan behera uztea erabaki zuen.

Nik honi kapitulatzea deritzot. 47 lagun kalera eta besteak fabrikara, lanera. Hau da langile bati gerta dakiokeen okerrena, teoriarik gabeko langileak babesteko dau-



## Bota bertsoa

Egoitz GOROSTERRAZU (Ituren) • Doinua: Sentimentua sartu zitzaidan

## Negua gogorra doa

Negua dator azkenen eta akabo uda lehorra leihotatik begiratuta elur maluta koxkorra polarra jarri eta kalera buruan jantzirik gorra baina atera ondoren gehio jantzi behar derrigorra uda beroa izan genuen negua berriz gogorra.

Hainbat istripu errepidetan, ezin atera kalera 5 gradu zero azpitik eta denak suaren ertzera eskolara ere joan gabe denak berriro bueltan ohera elurra dator, elurra dator aldatu zaigu jarrera behingun elurra egin du eta bagoaz disfrutatzen.

denak langileak saltzea, alegia; hauxe da Funveran gertatu dena, ELAko hauek hitz potoloak eta politikak erabili bai hedabideetan baina enpresari aurre egiteko garaia ailegatu deanean, besoak jaitsi, burua makurtu eta enpresak diona onartu; betikoa. Orain barruan darماغun mina eta haserrea alde batera utzi eta aurrera egiten saiatu beharko dugu. Enpresan gelditu direnei animoak bidali nahi dizkiet, batordean dituzten zuzendaritzarekin beharra izango dute eta.

## Mendizaleei eskaera

Berako Udaleko  
Mendien Batzordea

Baserrri mundua eta euskara izan dira Euskal Herriko kultura eta

nortasunaren ezaugarri nagusienak, baserritarra naturarekin batera bizi izan da duela gutti arte. Zorionez edo zoriotarrez egun ia ez da gelditzen hortik bizi den herritarrik eta ohitura zaharren desagertzearekin batera, gure mendiak gero eta utziagoak daude.

Hala ere, badira oraindik bertze lanarekin batera etxean azientak dituztenak eta ingurua eta paisaia mantentzen dutenak, nahiz horretan ez duten bidea batere erraz aurkitzen; soldata duina bermatzen duen lana bukatzerakoan, ordu aunitz sartu beharra dute, arratsaldeetan, asteburuetan... Baserrria mantentzeko instituzioen exijentziak gero eta handiagoak dira eta gainera baserriak ez du dirurik ematen.

Orain honetara ekartzen gaituena bertze arazo bat gehiago da: herritarrok ere mendia

maite dugu, eta asteburuetan batez ere jende aunitz «igotzen» gara paseatzera edota ehi-zara, batzuk bakarrik, bertzeak lagunekin eta bertze batzuk zakurrekin.

Azkeneko hauei Berako Udaleko Mendien Batzordeak eskatu nahi die zakurra kontrolpean edukitzea, batez ere inguruan azientarik badago, zakurra jolas moduan saingaka edo azientari segika hasten bada, animaliak, ardiak batez ere, izitu eta lasterka noraezian hasten dira. Gure herrian ardiak hil dituzten zakurrak ere suertatu dira.

Ez dago beti lotua kontu beharrik (kasuan kasu), nahikoa da denboraguztiaz bistan edukitzea eta azienta dagoen tokian ondo ondoan edukitzea.

Igan gaitezen mendira eta herritar guztiak elkar errespetatu goza dezagun natura.

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)  
Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**  
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**



**Prentsatik bildutakoak**



«Mundu txikia da gu-  
rea, eta orain bigarren  
mailan nagoela uste  
dut. Programetan ater-  
ratzean eragina askoz  
handiagoa da. Maila  
profesionalean beti  
nahi izan dut gauza  
mordoa egin. Gose  
handia izan dut tele-  
bistan eta handik kan-  
po, eta horrek berekin  
ekarri du ezagun izat-  
ea, fama (...) Orain  
desberdina da: bizitza  
pertsonalari garrantzi  
handia ematen diot».

**Estitxu FERNANDEZ**  
Lesakako TB aurkezlea  
BERRIA, 2010.02.21

«(...) 4. hedabidegabe-  
berria: diru laguntza  
publikoa hitz emanda  
bazegoen ere, krisi  
ekonomikoak ematen  
duen aitzakia ederra  
baliaturik, azkenean,  
2009an Euskarabideak  
euro xentimorik gabe  
utzi ditu Nafarroako  
euskarazko hedabide-  
ak (Euskalerrria, Xorro-  
xin, Karrape, Beleixe,  
(...) irriatiak; Xaloe tele-  
bista; eta *Ttipi-Ttapa*,  
*Mailope*, *Pulunpe* eta  
*Guaixe* aldizkariak».

**Paula KASARES**  
NaBaiko parlamentaria  
ARGIA, 2010.02.28

**11 galdera labur**

**Mendia ala bizikletan ibiltzea. Bat aukeratzekotan, zein?**

Bakarrik gateko bizikleta eta bertze-  
naz igual zait, bietan gustura.

**Baztango mendirik gustukoena?**  
Saioa.

**Kirola egiteko bakarrik edo norbai-  
tekin nahiago?**

Bietan ongi moldatzen naiz. Baina  
igual, matxakatzeko bakarrik eta gus-  
tura ibiltzeko jendeagorekin.

**Zer behar du mendigoizale on ba-  
tek?**

Gogoia eta gustua, eta kostatu ga-  
be goiz jeikitzea eta bestak uztea.

**Udan Islandiara bizikletan nolatan?**

Bizikletarekin bidaiatzea  
gustatzen zait eta  
Baztanen kuadri-  
lla bat elkartu  
eta Islandia  
aukeratu  
dugu ga-  
teko.  
Zerbait  
berria  
da, jende  
aunitz ga-  
ten ez  
dena.

**Prestakuntza berezirik egiten ari al  
zara?**

Ez, normalean ere kirola aunitz gus-  
tutzen zait eta aunitz egiten dut eta  
ez da espeziala harat gateagatik.

**Zer diote Nafarroako estatistikek?**

Gauza nahiko ilun dago. Nekazari-  
tza arloan nago eta prezioak eros-  
ten duenarendako goiti eta nekaza-  
riendako beheiti. Bidean norbaitek  
irabaziak ateratzen dituela argi da-  
go. Eta gero, uzta aldetik, iguala egi-  
ten segitzen da, eta betiko moduan  
nahiko kolokan.

**Funtzionarioak ederki bizi direla  
diotenei, zer erranen zenieke?**

Egia dela...

**Elizondarra ala baztandarra,  
zer sentitzen zara lehena-  
go?**

Elizondarra eta baztanda-  
rra, biek.

**Bisitatu duzun tokirik ede-  
rrena?**

Denek badute erakargarri-  
tasunen bat. Batzuek jende  
aldetik, bertze batzuk pai-  
saia aldetik... Baina gehien  
markatu nauena Zelanda Be-  
rriko paisaia izan da.

**Amets bat?**

Orain arte egiten ditudan gau-  
zak denbora aunitzez  
egin ahal izatea.



**Ramontxo GARMENDIA → Elizondoko gaztea**

arropak · maindireak  
mantak · nordikoak  
toallak · kortinak  
alfonbrak  
**Goya**  
Bera  
Albarrana, 4 · Tel: 948 630 083

**J.RAMOS**  
zolak akutzilatuta eta  
barnizatzen ditudat  
Sakelekoaz: 637 836 023 · LESAKA

**sarobe**  
geologia olindeaga  
p/da eztegera 25 bajo 1948 630899  
31700 berainnavarra www.sarobe.net

**ZOANSA**  
SEAT  
VW  
HYUNDAI  
Audi  
**MARKA GUZIEH KONPONKETA**  
Banarta, 2 - Alkaiaga Industrialdea  
LESAKA (sarrera Beratik)  
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

**2010-2011 IKASTURTERAKO  
AURREMATRIKULA EGITEKO  
AUKERA ZABALIK !!!!!**  
**MARTXOAREN 1etik 17ra**  
**MUKIXU UDAL HAUR ESKOLAN**  
\* Informazio gehiago:  
Mukixu Udal Haur Eskolan  
Eztegera pasealekua, 42  
T./F. 948 631 656  
31780 BERA  
e-posta: berekofftikialk@begira.com

## LANA

CONDESA → MOBILIZAZIOAK

# Etorkizun duinaren alde manifestazioa egingen dute Zalaingo langileek Gasteizen

Ortzegun honetan joanen dira Arabako hiriburura

TTIPI-TTAPA | BERA

Condesa taldeko Zalaingo Transformados lantegiako Langileen Batzordea deituta, mobilizazioak egingen ari dira langileak, etorkizun duinaren alde eta 95 langile kalera zeko zuzendaritzak egin duen mehatxuaren kontra. Hala, bortz egunez lanuzteak iragarri dituzte eta horietako batzuk egin dituzte dagoeneko. Otsailaren 26an batzarra eta manifestazioa egin zituzten, Zalaingo Berrara. Asteazken honetan ere, hilak 3, lanuzteaz gain, batzarra eta manifestazioa egiteko zuten Lesakan.

Ortzegunean, hilak 4, Gasteizera joanen dira.

Ama Zuriaren Plazan elkarretaratzea egingen dute 11:30ean eta manifestazioa ondotik. Lanuzteko hondarreko egunak martxoaren 16a eta 17a izanen dira.

## 'URTEAK MEHATXUPEAN'

Langileek salatu dutenez, «urteak daramazkigu mehatxupean. Zalaingo Transformados lantegia Condesa taldeak hartuz geroztik, 180 lanpostu galdu ditu, 480 langiletik egungo 300era pasatuz, eta gehiago kalera zeko mehatxuak bere horretan darrai». Izan ere, kopurua aldatzen bada ere, beti langileak soberan daudela diote zuzendaritzatik: «2007an 136 sobera ziren, 2008an 118, 2009ko uztailaren aurkeztu zigun txostenean 140, 2010erako EREa aurkezteko txostenean 105 ziren eta azkeneko bileran adierazita-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Zalaingo Transformadoseko Langileen Batzordeko ELA eta LABeko ordezkariak prentsaurreko eskaini zuten otsailaren 24an, mobilizazioak iragarri.

koaren arabera 95». Dena den, Langileen Batzordeko presidentea Xabier Bujandak gogoratu duenez, «Zalaingo enpresak galerak izan ditu azkeneko bortz urteetan,

**'MEHATXUPEAN'**  
«Urteak daramazkigu mehatxupean. Zalaingo Transformados lantegia Condesak hartuz geroztik, 180 lanpostu galdu ditugu»

Langileen Batzordea

DATUA

95

LANGILE  
soberan daudela  
adierazi du zuzendaritzak.

beraz, ezin erran gaur egungo egoera krisiagatik dela. Krisiak berezko egoera kaxkarra areagotu bertzerik ez du egin. Horregatik, lantegiak etorkizuna duen ala ez zehaztea eskatzen diogu enpresari». Langileen etorkizuna ez ezik, enpresarena ere arriskuan izan daitekeela uste du Enpresa Batzordeak.

## PRODUKZIOA BEHEITI

Urteko produkzioa 111.000 tonatik oraingo 40.000 tonara jaitsi dela ere salatu dute langileak, Condesak hartutako erabakien ondorioz. «Lehen hainbat motatako hodiak egingen genituen, baina produkzio gehiena bertze lekuetara bideratu eta Zalainen autogintzarako hodi kalibratuarekin bakarrik gelditu

gara. Condesa osoan hodi hori egingen dugun bakarrak gara, baina produkzioa tiki da».

Zalaingo langileak erregulazioan egon ziren 2009ko maiatzaren 25etik abenduaren 31ra, inolako osagarririk gabe eta orain baldintza beretan bertze ERE batean daude irailaren 30a arte, «komitearekin adostu gabeko EREa». Langileen Batzordeak zuzendaritzak egingen duen «plantillaren erabilpen gehiegizkoa» kritikatu du eta Nafarroako Gobernuak Zalaingo aurkeztutako erregulazio txosteni «inolako zorrotasunik gabe» erantzun diela uste du, «inolako disimulurik gabe ugazabaren alde erabakiz eta Langileen Batzordeak aurkeztutako kontratxostenak kontutan hartu gabe».

**ERROTASAR**  
harategia

Bertako produktua

Eztegara, 3 - BERA  
Tel/Faxa: 948 630 088

**Albisorantz** klinika

Kontsulta lekuz aldatu dugu

Helbide berria:

Iturilandeta, 3 - Behea Ezker  
31780 Bera  
948 631 631

**LEGARRA**

- EGUNKARIAK
- ALDIZKARIAK
- LIBURUAK
- OPARIAK
- TABAKOA
- FOTOKOPIAK
- ENKUADERNAZIOAK
- PLASTIFIKAZIOAK
- FAX PUBLIKOA

TESTU LIBURUAK ENKARGUZ

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA



EZKONTZA GEHIGARRIA 2010



# ML

ESTETIKA - ILEAPAINDEGI MISTOA

depilazio elektrikoa  
ileapaindegia - solariuma  
depilazioa - masajea  
manikura - pedikura

eskatu ordua

Hurlandeta, 4 BERA T. 948 630 483



## Banity

Luis Mariano 16-18 • IRUN • Tfnoa: 943 63 11 44

# TEXARTU

Euskal ezkontzak - Brodatuak

San Frantzisko 8 eta 10 • Alde Zaharra • Iruña  
www.texartu.com • T. 948 22 64 95



# Jantziak Emaztegaiendako

Emaztegaiendako jantzien 2010erako joerak inspirazio erromantikoa eta bukolikoa duten diseinuetara bideratuak daude, emakumearen gorputzera ongi egokitzen direnak eta eskote pikoekin.

Oihalei dagokionez, arinak eta finak izanen dira, zetazkoak edo gasazkoak, zilar eta kristalezko adornuekin,


*retro* estiloaren aldeko apustua egiten duten emaztegai erromantikoendako. Kolore txuriak eta gordinak izanen dira, baina badira ausartagoak ere, beltzean egindako diseinuak, konparaziora. Xehetasunek (brodatuak, harribitxiak...) testura emanen diote jantziei eta aukera zabalagoa izanen da estiloa eta mozketari dagokionean. Betiko printzesa jantzia oraindik ere hagitz erabilia bada ere, emaztegaiendako mesedegarriagoak diren eta gorputzera hobeki egokitzen diren jantziak ikusten ari dira. Izan ere, jantziek emakumearen edertasuna nabarmendu egin behar dute. Erraza dirudi, baina auniztan andregaiak, azken joerak itsuki segitzearren, mesede egiten ez dieten modeloak aukeratzen dituzte eta bere ezkontza-egunean ez eroso sentitzen bukatzen dute.



Adornu gisara, kolorea ematen duen lore itxurako apaingarri bat jartzen ahal da beso gainean, edo jantzian.

Horrek ukitu gozo eta xarman-garria emanen die andregaiari. 2010erako eskoteek besoak agerian uzten dituzte, joan den urtean hain erabilia eta ezaguna den "palabra de honor" delako mozketarekin. Gorputz estuko eta gona zabaleko jantziak ere present daude andregaiendako kolekzioetan, denentzako gomendagarriak baitira. Neskaren "baliabideak" nabarmendu eta "akats ttikiak" (bular ttiki edo handiak, gerrialde edo aldaka zabalak...) gordetzeko egokiak dira. Beharbada andregai ttiki eta pottoloendako ez da egokiena, lauki efektua emanen baitio, altuera kenduz eta zabalera emanez.





## Senargai- endako

Senargaiak ez dute dagoeneko hamarkadaz hamarkada erabili den jantzi beltza bakarrik aukeratzen eta bertze kolore bizi eta ausartagoak sartzen dituzte txalekoaren bitartez. Garai bateko korbaten ordez estilo ikusgarriagoa duten zapiak erabiltzen hasi dira. Generalean, mutilak neskak baino ausartagoak dira, kolore deigarriagoak erabiltzeko prestuago eta beti eraman izan den seriotasunarekin hautsi nahi izaten dute.

Mutilek ere berezi sentitu nahi dute beraien ezkontza-egunean. Normalki hiru zatiko jantziak izaten dituzte. Txaketa, galtzak eta txalekoa. Honek eta gorbatak (edo zapiak) kolore bera izaten dute eta horrek ematen dio kolorea trajeari. Zapatak ere ongi aukeratu beharrekoak dira.

**JUAN J. PIKABEA**  
 SENARGAIENTZAKO TRAJEA  
 ZURE NEURRIRA

10 egunez

Neurri handiak  
 Galtzak eta bakeroak 70 arte  
 Atorrak 56 arte  
 Jertseak

AMEZTIA z/g · DONEZTEBE · 948 451 670



**MERCHÉ**  
 MODA HOMBRE

Giovani Valdi • Sandro Sellini • Caramelo gala  
 Serapio Mugika, 11 • 20302 IRUN • 943 612 626



# Orrazkerak

## Emaztegaiendako

**Pinpirin**  
PELLICLERIA • ILEAPAINDEGIA

Aitziber  
Ultima Gantestetan

Plaza Zaharra, 26 • Lesaka  
T. 948 63 80 37

**ainhoa**  
estilista

RUTH ILEAPAINDEGIAN  
betiko tokian aurkituko gaituzue!!

Elizate 59 • LESAKA • 948 637 436

**Amaia**  
estelika zentroa

- Ardatzgarritasuna burupei eta gorputz irratimendu; tenzioak (koloreak, urres...)
- Auzoan sartutako kutsuak
- Manikura frizturez
- Masajiaz
- Sokaluzuz
- Depilazioz
- Oxiganoz

Amaia 1/g • DONEZTERRI  
T. 948 450 163

Emaztegai gehienek be-  
raien ezkontza egunean me-  
lena erakustea aukeratzen  
badute ere, aurten ile bil-  
dua izanen da protagonista,  
altuak nahiz baxuak izan  
daitezkeen mototsekin, eta  
baita solte eraman daitez-  
keenak ere, bi estiloak kon-  
binatuz. Ilea moztea auke-  
ratzen baldin bada, modan  
dago eta egonen da me-  
lena erdiko orrazkera, bai  
lisoa eta baita kixkurrekin  
ere.

Gehien erabiliko dena,  
txirikordak edo trentzak, mi-

la modutan sartzen direnak  
orrazkeretan: koletan, tiki-  
ak, handiak, bazter batean,  
lazoekin nahasiak, es-  
tentsioekin, etabar...

Gainera, bolumen handiko  
orrazkerak ere ikusiko di-  
tugu, estentsioekin egin-  
dako ilebilduetan. Altuera  
handiko emaztegaiendako  
egokiak dira. Estilo hagitz  
naturaleko orrazkerak ere  
izanen dira, orraztu gabeko  
ukituekin, emaztegai neo-  
erromantikoendako. Me-  
lena erdiendako perfektuak  
dira.



## Ezkontza zibila (eta dibortzioa) Erdi Aroan ere bazen Nafarroan



Elizaz egindako ezkontza "betikoa" dela diote aunitzek, eta zibilez ezkontzea "modernokeria" dela iruditzen zaie. Bada, gezurra badirudi ere, Nafarroako Foru Orokorren arabera, Erdi Aroan Nafarroan ezkontza zibila izan bazen, apezarik gabe bi lekukoren testigantza aski izaten zen guziz baliagarria izateko. Harri-garria dirudi, erraztasun berdinarekin bertan behera utz zitekeen ezkontza, kontratua hautsiz. Horrek, Elizaren protesta ekarri zuen "lehenbiziko senarra edo emaztea oraindik bizirik zegoenean, bigarrenez edo hainbatgarrenez ezkontzeko ahalke ez zirenen kontra". 1563an Trentoko Kontzilioak ezkontza hauek adu-terotzat jo zituen eta bakar-bakarrik apezaren aitzinean egin eta parrokiako libu-ruan sinatzen zirenak onartzen hasi zen. Bertzeak, itxura denez, betiko suan erreko ziren. Orduan, elizako epaitegiak Nafarroako Foruaren arabera egindako ezkontzak salatzen hasi ziren. Orduko epaiketetako agiriekin agertzen dutenez, ezkontza-formula euskaraz ere egiten zen hainbat herritan.

Adibide bat: 1552an, Zufiako bi ezkongaiak, Mari-Miguel eta Diegok eskuin es-  
kua elkar hartu eta honako solas hauek erran zituen senargaiak: "Nic Diego



# Senargaiendako

Senargaiaren orrazkerak ez du emaztegaiarena bezainbertzeko prestakuntzarik eskatzen. Komeni da ezkontza baino hiru aste lehenago ilea moztea. Honela, ilea nahikoa haziko da eta ezkontza-egunean itxura guziz naturala izanen du. Ile gutti izan eta disimulatu nahi duten gizonek, ileapaintzailearengana joan beharko dute proba batzuk egitera. Estiloa ongi aukeratuz gero, bere soiltasuna disimulatzen lagunduko dio. Bere itxura berritzeko bertze aukera batzuk ere badaude, metxak, brilloak eta tintreak, erraterako. Hau ere denboraz egitea komeni da, bi arrazoiengatik: batetik, ongi gelditzen zaion ikusteko eta bertetik, itxura berrira ohitzeko, horrelako zerbait egiten duen lehen aldia baldin bada, batez ere.



Krestak, ile motz-motza, Emo estiloko ilea edo ile luzeago modu dotorean egokitzen ahal dira, ezkontza-egunean mutilak estiloz beteta egoteko. Behar bada, senargaiei hobekien gelditzen zaion orrazkera, ile motz-motza eramatea da, goiko aldean luzexegoa utzita. Honela, gel edo gomina eman eta egun osoan itxura freskoa mantenduko du. Azkenik, ezkontza-egunean ileapaindegira orraztera joatea komeni da, baina orrazteko bakarrik, "esperimentu berriak" probatzeko beranduegi baita.

## ba al zenekien?

*de Zufia ematen drauzut fedea zuri María Miguel ez verçe senarric egiteco". Emaztegiaik arrapostu: "Alaver nic Mari-Miguel ematen drauzut zuri Diego neure fedea ene senarçat eta ez verçe senarric egitecoz zu bayci". Beraz, fidedeltasun hitza bertzerik ez zuten ematen.*

Baina nonbait Diego damutu egin zen beranduago eta bere hitza baldintzatua eman zuela adierazi: *"Nic ematen drauzut neure fedea valdin Yo baneça aren senar içateko"* erran omen zuen. Yo baneça horrekin emaztearekin larrua jotzeko baldintza ezarri omen zuen nonbait Diegok. Horrelakorik lortu zuen edo ez zuen lortu ezin jakin, baina Nafarroako epaitegiek Forua segituz balioa eman zioten ezkontzari. Baina dagoeneko Nafarroa ez zen erresuma independentea eta Trentoko irizpidea nagusitu zen. Diegok Zaragozan lortu zuen ezkontza balio gabetzea.

Utergako Juana eta Adioseko Martinek gisako formula erabili zuten ezkontzeko, senarra damutu baino lehen. Eskuin eskua hartuz eta hika eman zuten hitza: *"Nic Martín y Joanna arçenaut neure alarçoat (?) eta hic arnaçan yre esposoçat eta prometaçen dinat ez vede emazteric eguiteco y baycen viçi nayçen artean eta guardaçeco lealtadea ala fede, ala fede, ala fede"*. Eta Juanak erantzun: *"Nic Juana y Martín arçenaut eure sposoçat eta hic arnaçan yre esposoçat eta prometaçen diat ez vede senarric eguiteco y baycen viçi nayçen artean eta guardaçeco lealtadea ala fede, ala fede, ala fede"*.

Jose Mari Esparza

Zer da harrigarriago? Duela lau mende Nafarroako hain hegoaldean dauden herrietan euskaraz hain bizi somatzea edo ezkontzeko eta dibortziatzeko halako erraztasuna izatea? Lekuko zibilen aitzinean eskuak hartu eta leialtasuna hitz ematea aski zen ezkontzeko, baita adio errateko ere. Gauza naturalago eta ederragorik!

Idoia Ozeia  
ileapaindegia

Mota guztietako Ezkontza orrazkerak  
Etorri eta galdetu konpromisorik gabe

Plazaburua, 9 beheko Elizondo  
T. 948 580 360  
www.idoiaozeia.com  
info@idoiaozeia.com

Andregaietarako eskaintza bereziak  
Egun ahaztezin horretarako makillaje berezia

T. 948 581 360 • 606 738 466  
Xalbador, 14 • Elizondo

ESTIBALIZ  
estetika zentrua

maria  
ileapaindegia

T. 948 450 922  
Zazpigarutze, 6  
Donostia

Zuri eta zure ileari egokituta, azkeneko tendentziak ile bilduetan eta ileko apaingarrietan

## BEOLA

Posada - Palacio



Zure ezkontza egunean,  
otordurik berexiene.

Kaerika Nagusia, 1 • Almansor • T. 948 585 002

# Zalain

JATETXEA RESTAURANTE

Ospakizun berezietarako jantokia  
Menua eta karta  
Sasoian sasoiko platerak



Ezkontzetarako  
leku paregabea

Zalain auzoa z/g  
31780 Bera  
t. 948 631 106  
w. www.zalain.com

# Zalain

# Jatetxeak

Ezkontza-banketea non egin ongi pentsatu behar da. Ospakizuneko erabaki garrantzitsuenetako bat da, gonbidatuen sozializazioa eta bikotearen erlajazioa laguntzen duen lekua delako. Gainera, gonbidatuek ezkontza-ospakizunaren oroitzapen ona gorde behar dute eta, horretarako, ezinbestekoa da otordua egin behar den lekuarekin ongi asmatzea.

Mahaiak eta gonbidatuak nola kokatu izan ohi da ezkongaien gehien galdeztzen dutena. Mahai bakoitzeko

gonbidatu kopurua, guztira bazkaltzen izanen diren kopuruaren arabera aldatzen da. Ezkongaien nahietara zabalik izaten dira jatetxeak baina, normalean, zortzi eta hamar lagun artean izaten dira mahai bakoitzeko, baina hamabi edo hamaseira ere igotzen dira, lagun, senide edo lankide kopuruaren arabera. Mahaien kokapena ezkongaien duten hurbiltasunaren arabera kokatu izaten da. Ezkongaien mahiburutik hurbilenak senideak izaten dira, gero lagunak eta urrunenak lankideak.



## HOTEL BAZTAN

Iruñea-Frantzia errep. 52km • 31700 Elizondo  
T. 948 580 050 • F. 948 452 323  
www.hotelbazan.com • info@hotelbazan.com



- Gonbidatuei ongi-etorria emanen dien **aperitiboa** gure lorategietan egingen da, naturaren erdian, bailara inguratzen duten mendiak parean direla.
- Aurrez erabakitako **menua proposamen zerrenda luze** batetik aukeraturakoa izanen da, sukaldaritzaren tradizionalararen eta plater berritzaileen arteko bategitea
- **250 lagunentzako toki** duen gure saloi haundian egingen da edo nahiago izanez gero, lorategian karpa bat jartzen ahal izanen da.
- Ondorengo dibertsioa eta dantzaldia ere seguruak izanen dira gure musika-zerbitzuei eta ostatuari esker.
- Bukatzeko zer hoberik **afaritsuoa** baino, indarrak berreskuratu eta dibertsioarekin segitzeko.
- Gonbidatuentzako **aparkaleku estali haundi** bat ere badugu, eta gure logeletan gonbidatu eta senitartekoentzako prezio bereziak ere egingen dira.






## Menurik egokiena

Gastronomia adituen arabera, bikoteek menu tradizional aukeratu ohi dituzte. Bikoteek ez dute berritzeko arriskurik hartzen eta haragi eta arrainei garrantzia ematen segitzen dute.

Ongietorriko zizka-mizka goxo batzuek hasiera ona ematen diote bazkariari baina, beti ere, bazkaltiarrek betetzen ez baditu. Kopuru aldetik ere ongi begiratu behar da eta, horretarako, sarrerako bizpahiru plater paratzea aski da, gonbidatu guzien ahoa gozatzeko.

Segidan, arrainki plater batek eta haragiko bertze batek, indarra eta gozotasuna konbinatzen dute eta jatetxeko espezialitateak ezagutzera emateko baliagarriak dira. Ezin ahantzi plater bat eta bertzearen artean zerbitzatzen den sorbetea, zapore nahasketarik ez gertatzeko.

Postrea izanen da otorduko ginda eta, honetan, teknika eta konbinazio berriak esperimintatzeko eta berrikuntzak egiteko aukera izaten da, gonbidatu guztiaren gozagarri. Arestian aipatu bezala, kopuruan ere neurritz ibili behar da, ezkontza-tarta mozteko orduan oraindik jateko gogo pixka bat izateko. Orduan hasten dira kaba (edo txanpain) botilak irekitzen eta ohiko *Gorrazkonberriak!* aditzen. Tentsio eta urduritasunak alde batera utzi eta zorientasuna eta zoramena abiatzen da.



## ZUBIONDO Jatetxea

**BANKETEA ETA KARTA**  
*eskatu gure ezkontzetako menua*

- 350,160 eta 40 lagunendako hiru jangela
- Bazkalondoa nahi bertze luzatzeko aukera
- Auto eta autobusendako aparkalekua
- Haurrendako jolasparkea
- Kokterarako leku aproposa




Iruñea - Irun errep. 70km  
31760 ETXALAR  
T. 948 635 000  
F. 948 635 263  
info@etxalar.com  
www.etxalar.com

- 275 lagunentzako jantokia
- Ezkontzetako menu aldagarria
- Xoko politak bai kanpoin baita barruan ere
- Eguraldi onarekin musika terrazan
- Ongi etorri koktela - Lunch afuriak
- 21:30ak arte musika
- Gaua hotelean pasatzeko prezio bereziak taldeentzako
- Suita oparitzen dugu ezkontza gauean
- Arrosak eta inprenta hotelaren kontura

**Aurrekontua eskatu konpromisorik gabe!!**







# Erreportajea Argazkiak

Irudiak tratatzeko programa eta teknika berriak sortzearekin, programa informatikoen bidez kolorea eta txuri-beltza nahasteko joera handia izan zen garai batean. Irudiak aldatzeko teknikak eta matea erabiltzeko ere joera handia izan zen, berrikuntzaren sinonimo baitziren.

Gaur egun, ordea, argazkilariek espontaneotasuna bilatzen dute eta, azken joeretan, uneak *harrapatzen* saiatzen dira, ez uneak *produzitzen*. Hala ere, ezkontzako argazki-erreportaje perfektua ateratzeko irudien tratamendurako programen erabilera ez da guztiz alde batera utzi behar. Egokiena, behar beharrezko gauzandako bakarrik erabiltzea da, irudiak hobetzeko, argazkiaren kalitatea handitzeko edo gaizki egindakoak ezabatzeko.

Dena dela, argazki bat bikaintasunera ailegatzeko egilearen talentua behar beharrezkoa da. Bikoteak zer nahi duen jakin behar du argazkilariak, nolakoak diren eta mugimendu bakar batez bere sentimentuak eta emozioak bildu.

Gaur egun bikoteek originaltasuna bilatzen dute, orain arte egin diren gauzetatik modu ezberdin batean agertzea, muntaia berezi batean. Gaur egun argazkiak egiteko moduak naturaltasuna eta berezotasuna bilatzen du.

*Pose* jakin batzuk baino gehiago, eguna bere osotasunean bilatzen dute aditu eta bezero aunitzek. Egunean zehar irudi aunitz hartzen dira eta hoberenak aukeratu behar dira irizpide jakinekin eta neutraltasunez. Hurrengo urratsa, erreportajea ongi antolatzea da. Paper gainean ere teknika digitala erabiltzen da eta argazki onenei indar gehiago ematen zaie, neurria handituz eta bertze batzuk, aldiz, ttikituz.



## Bideoa

Argazkilaria aunitzek, argazkiak ez ezik, bideoa eskaintzen dizkiete bikoteei. Prezioa grabatutako erreportajea duen luzeraren eta edizioan erabilitako elementuen arabera izan ohi da. Edozein kasutan ere, argazkilaria aurretik eginak dauzkan bideo batzuk ikusten uztea eskatzea da onena, lan egiteko moduarekin konforme egonen gara ziurtatzeko.

Zati bakoitzaren klipak grabatu ohi dira; ezkongaien gaztetako argazki bideoa, ezkongaien paseoa, zeremonia, bazkaria, erreportajearen laburpena...

Gainera, ezkonberriek bideo-erreportajea hainbat formatu digitaletan gordetzeko aukera eskura izan dute. Gaur egun DVD eta internetarako bertsioak ere eskaintzen dituzte sarritan eta horiek arras egokiak dira ezkontzara joaterik izan ez duten eta urruti dauden lagun edo senitartekoei bidaltzeko. Eta nola ez, bikoteak egunean bertan ikusi ez dituen momentu hunkigarri horiek ezkontza eguna pasa ondotik behin eta berriz ikusteko ere.



**EZKONTZETAN ESPERIENTZIA HANDIA DUGU**

- Talde profesional batek egina
- Merkatuko preziorik onenak

T. 948 599 055 M. 609 488 612  
Gure egailza • DANTXARINEA  
Mendinueta, 7 2. Erz. ELIZONDO

**VIDICOM**  
**PRODUKTORRA**

DVD VIDEO Blu-ray Disc Pend. driver FULL HD 1080

Bideo Erreportaiak

Zure bizitzako eguna

**595€**

676 366 416

www.VIDICOM.name

## EZKONTZA GONBIDAPENAK




100 gonbidapen



Andutzeta, 12 • 31760 ETXALAR • Tel. 948 635 458 • kulturkari@ttipi.net





**URREGINE**  
BITXIDENDA TAILERRA

•Bitxiak zure neurria  
•Aliantza bereziak

•Eskatu aurrekontua  
•Jacob Jensen eta Danish Design erlojuak

Santiago, 55 • ELIZONDO • 948 45 26 34

**KOSAS DE CASA**

**ETORRI**  
ezkontza gonbidapen eta  
oparietan berrikuntza  
guztiak aurkituko dituzu

Eskatu aurrekontua konpromisoren gabe

**HARRITUKO ZARA!!!**

T./F. 948 45 04 09 • cosasdecasa2@terra.es  
Intziakandi, 9 • 31740 • Doneztebe

**bortzirudi**

**EZKON-GONBITAK**  
DOTOREAK, JOERA BERRIAK,  
UMORETSUAK, e.a.

**DESPEDIDETARAKO**  
KAMISETAK · ARGAZKI MUNTAIK  
e.a.

# Ezkontza Gonbidapenak

Ezkontz-gonbidapenerako material eta testu originalak bilatzeko joera izaten da. Lazo batekin bildutako txartelak, koloreko kartulinak eta umore pixkat dutenak nagusitzen dira.

Ezkontz-gonbidapenak dira gonbidatuak ospakizunera etor daitezen erabili ohi den komunikazio ofiziala. Lagun eta senideak jakinaren gainean egonen badira ere, gonbidapenarekin ospakizunaren lekua, data eta ordua zehazten dira, baita ondoko otorduarena ere.

Ezkontz-gonbidapenetan modelo klasikoa aukera ona da, ezkontza formala denean eta asmatuko dugula segurtatu nahi badugu. Baina gaur egun, ezkontzak ere arras ezberdinak izaten dira eta horrek txarteletan ere bere agerpena izaten du. Gonbidapen originalak argazki eta marrazkiz hornituak datoz, ezkongaiak protagonistak direla. Aurkezpena berritzeko, hainbat formatu eta paper klase erabiltzen dira. Aukera guztiak hor daude: itxura eta kolore originaleko paperak, kartulinak edo baita abaniko batean idatzitako gonbidapenak ere. Bikote batzuk tonu tradizionalagoa nahiago badute ere, bertze batzuk umorea jarri nahi izaten diote idatziari. Beti ere, testua laburra izan behar da, baina ospakizunaren datu zehatzak eman behar ditu eta, garrantzitsua, gonbidatua joan dela baieztatzeko kontakturako datuak (telefonoa, e-Posta...).

# Oparitxoak

Ezkongaien opariak ere ematen dizkiete gonbidatuei.



Ezkontzara agertzeagatik bere esker ona adierazteko opari original edo praktikoak eskaini nahi izaten dizkiete ezkongaien gonbidatuei. Gaur egun, praktikotasuna eta funtzionaltasuna bilatzen da oparietan, apal batean hautsa pilotzeko bakarrik ez daitezen gelditu. Honela, xaboiek eta kandlek hartu dute indarra azken aldirian, adornurako ez ezik erabiltzeko baliagarriak direlako. Oroigarriko giltzarriak ere erabilgarriak dira. Bertze aukera bat gonbidatuei ezkontzan aditu den edo ezkongaien gustukoa den musika biltzen duen diska bat oparitzea da, edo modu berezian aurkeztutako bonboiak.



# Emaztegaiendako Lore-xortak

2010 denboraldian glamur handiko lore-xortak nagusituko dira, baina neurrian eta koloreetan exajeraziorik gabe, kalitate handiko loreekin; emaztegaia estali gabe, bere irudia indartzen dutenak eta jantziarekin eta bertze osagarriekin bat datozenak. Modako loreak larrosak, jazminak eta orkideak dira, ezkontza egiten den denboraldiko loreekin nahasiak. Tono hagitxuak erabiltzeko joera dator, txuria eta arrosa, batez ere. Lore-xorta egiterakoan osagai garrantzitsuena emaztegaiaren gustua baldin bada ere, munduan andregai bezainbertze xorta daude eta ez da komeni aukeraketa azken ordura arte uztea.

Baina ez da bakarrik lore-xorta kontuan hartu behar dena, eliza edo ospakizun zibila egin behar den lekuaren eta ezkontza-otordua egin behar den lekuaren dekorazioa ere zaindu behar dira. Aukeratzen dugun lorearen, konbinazioaren, osagarrien, edukiontzien eta lekuaren arabera efektu bat edo guztiz kontrako lortuko dugu.

Udaletxeko aretoa edo elizako aldare ingurua edo jatetxekoa (mahaiburua) ikusgarria geldituko da denboraldiko loreak aukeratzen baditugu. Larrosak dira orain ere protagonista, baina bertze espezie batzuk ere arrakastaz izaten dute: kalak, magnoliak, lilak edo peoniak.

Otordu eta bestarako detaile ikusgarriak lortu behar dira, baina besta bera oztopatzen ez dutenak. Gonbidatuen mahaietarako lore-zentru xumeak dira egokienak, margaritekin apainduak, adibidez.



**Mailposta Buzoneos**  
Inprimategia • publizitatea

*Zare estoi eguna berezua dela, aste dagalako, zare ezkontza gonbidapean zure estilara eta gastura diseinatzen dugu.*

Tel. 686 747 713 • 609 404 229  
Altzagorea, 55 • Nاربarte

**UZTERRI**  
667 45 50 14 • www.uzterri.com • info@uzterri.com

Garden Center

**Endanea**

Asteartetik larunbatera: 09:00 - 20:00  
Igande eta astelehenak: 09:00 - 14:00

*Ezkontzarako behar dituzun lore apaingarri guztiak*

*Zatoz eta Ikusi Gure Eskaintza*

*Zare ezkontzarako lore-sorta modu pertsonalizatua diseinatzen dugua*  
Jaizubia Auzoa, 40 • HONDARRIBIA • T. 943 641 710 • www.endanea.com

# Bidaiak

Ezkontza prestatzeko harat-honaten eta urduritasunen ondotik, azkenean ezkon-bidaia ailegatu da, ospakizunaren antolakuntzak ekarri duen estresaz deskonektatu eta gozatzeko unea. Bikoteak haina bidai-aukera daude, hiri-etatik eta kultur proposamenetatik hasi eta aisialdian eta atsedendaldian oinarritutako jomuga exotikoak bitarte.

Normalean ezkonberriek urruneko lekuren bat ezagutzeko aprobeztatzen dute, hurbilagokoak bertze edozein momentutan bisitatzeko aukera izanen baitute. Batzutan, aukeratutako bidaiak baldintzatzen du ezkontzaren data ere, adibidez, aukeratu dugun urruneko helmugan uda izatea nahi badugu. Leku exotiko eta lasaia bilatzen dutenentzat, Karibea da klasikoetako bat, Punta Cana, Kuba edo Riviera Maya bezalako helmugekin.

Bikote ausartagoentzako edo esperientzia berezia bizi nahi dutenentzako, abentura pittin bat duten ibilbideak proposatzen duten bidai-agentziak gero eta gehiago dira. Afrika da gehienetan hartzen dena, aukera ugari eskaintzen baititu.

Ekialde Erdian hainbat aukera daude: Dubaiko luxua eta tradizioa edo Itsaso Hila eta Petra hiria Jordanian. Ekialde Urrunean ere hainbat jomuga izan daitezke. Txina furi-furian dago azkeneko urteetan, baina oraindik orain bikote aunitzek ezkon-bidaia Asian pasatzekotan Tailandia aukeratzeko dute.

Hiri handiak maite dituztenek, euren ezkon-bidaia aprobeztatzen ahal dute leku berriak ezagutzeko eta kultur eskaintza zabalaz gozatzeko. New York da aukera erakargarrienetako bat, bere arkitektura-paisaiarengatik, museo eta ikuskizun eskaintzarengatik eta erosketak egiteko moduarengatik. Paris, Roma edo Vienak ere arteaz eta historiaren gozatzeko zirkuituak eskaintzen dituzte.

Eta hor daude kruzeroak ere: Noruegako fiordoetatik hasi eta Mediterraneoko kostaldera bitarte.



Hemen dago zuen ametsetako bidaiak!!

**Bidaiak**  
**EstivalTour**

Lekeeta, 1  
31780 BERA (Nafarroa)  
Tel.: 948 63 04 51  
Faxa: 948 63 06 41

e-mail: [bera@estivaltour.com](mailto:bera@estivaltour.com) · [www.estivaltour.com](http://www.estivaltour.com)

**Barceló**

**Bidaiari maiteminduak**

Bidaiak, bizitzak, bidai zoragarrietan izandako esperientziak maiteminduak. Proposamen puzgarrienak eta promozio teratzaileenak aurki ditzakezu Bidaiari Maiteminduak 2010 katalogo berrian.

Barcelonara etor zaitez eta eska ezazu zures.

Aholkuri hobereana zure Barceló agentziari  
LESAMA Plaza Zaharra, 4 • 948 63 61 79  
[lesama@barcelotour.com](mailto:lesama@barcelotour.com)

*Nerkin bidaiatu nahi duzue?*  
Aurrerantzeko bazarete, storri Viajes Marfilera.  
Zuen erkon bidaiarako baldintza hoberenak ditugu.

Carlos III Etorb. 13-15 • IRUÑEA • 948 206 246 • [carlos3@marfilviajes.com](mailto:carlos3@marfilviajes.com)  
Pasadizo Caballeros, 49 • IRUÑEA • 948 290 350 • [pasadizo@marfilviajes.com](mailto:pasadizo@marfilviajes.com)  
Fonjas Plaza, 13 • BARRAJAN • 948 296 250 • [barrajan@marfilviajes.com](mailto:barrajan@marfilviajes.com)  
LA MOREA - merkataritza zentrua • CORDOVILLA • 948 299 328 • [mpen@marfilviajes.com](mailto:mpen@marfilviajes.com)  
Gardachales kalea, 3 • TUTERA • 948 248 418 • [tudera@marfilviajes.com](mailto:tudera@marfilviajes.com)





# TXINGUDI DEEJAYS®



## DJ/ANIMATZAILE KOLEKTIBOA

EZKONTZAK / BATAIOAK / IREKIERAK  
DISKOTEKAK / KARAOKEAK / KARPAK / BESTAK

T 637 513 362 [www.txingudideejays.com](http://www.txingudideejays.com)

EZKONTZAK ETA EKINTZAK



# BERA

GURE TXOKOA → ETORKIZUNA AIREAN

## Gure Txokoa elkartearen etorkizuna bermatzeko estatutuak aldatuko dituzte

1.500 bazkide ditu eta 12 bildu ziren azken batzarrean

### TTIPI-TTAPA

Gure Txokoa elkartearen etorkizuna kolokan dago. Urteko batzar orokorra egin zuen otsailaren 12an eta ez zuen arrakasta haundiegirik izan: 1.500 bazkide inguru ditu eta 12 bakarrik agertu ziren batez ere Zuzendaritza Batzordea berrietzeko baliagarria zen bilerara. Egoera ikusita, batzordea aldatzeko duela lau urte pasatutakoa errepikatuko delaren beldur dira batzordekideak. Orduan ez zen inor aurkeztu azken ordurarte eta elkarte desagertzeko zorian izan zen.

Horregatik, hauteskundeak egin aitzinetik, hilabete bateko epean, estatutuetan batzorde aldatetari dagozkien artikulua aldatzea erabaki da, «Gure Txokoa hil ez dadin». Batzar berezia egingen da martxoan.

### EKITALDI BERRIAK

2009an egin ziren ekitaldi berrien artean, Larungo Mendi Bizikleta lgoera, futboleko benjamin talde berria eta Ma-

tzadako argiteria berria dira aipatzekoak. Ostuaren erabilera handitu dela ere adierazi zen, baina oraindik ohiko arazoak ez dira desagertu: faltak, garbitasuna...

Sosak ere ongi mantendu ziren iaz, kontuan hartuta lamotenean obra egin zela: «gastu hagitz handia izan den arren, lortu da dena ordaintzeko dirua». Batzordeak kargua utziko duenez, ez du aurtengo aurrekonturik aurkeztu, baina gastuak jaustea proposatu du.

### Mendien zakurrak kontrolpean

Mendira euren zakurrekin joaten direnei animalia kontrolpean edukitzeko eskatu die Udaleko Mendien Batzordeak, batez ere, inguruan azien dak baldin badaude. Zakurra jolasean saingaka edo aziendari segika hasten bada, animaliak, ardiak batez ere, izitu eta lasterka noraezean hasten direlako. Mendien Batzordeak dioenez, «gure herrian ardiak hil dituzten zakurrak ere badira». Argitu nahi izan du ez dagoela beti lotua kontu beharrik, kasuan kasu, «nahikoa da denbora guztian bistan edukitzea eta azienda dagoen tokian ondoan edukitzea».



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA, GOIKO ETA AYL

### la ehun inude eta artzain inauterietan

Hotz handia egin arren, inauterietako giroa ez zen alde batera gelditu. Igandearrekin, erraterako, 50 bikote inguru atera ziren Inude eta Artzainen kalejira eta astelehenero mozorroen artean gisa guzietakoak ikusi ziren. Argazkian lehen lau sariak eskuratu zituztenak ageri dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

### 56 bikote Gure Txokoako Mus Txapelketan

Arrakasta handikoa izan zen Gure Txokoa elkarteak antolatuta otsailaren 13an egindako Mus Txapelketa. Bosgarren edizioa zen eta 56 bikote bildu ziren lamotenean. Baina guztien artean, Andoni Martinez eta Oskar Tapia heritarrak gailendu ziren. Eurentzat izan ziren, beraz, txapeladunen 400 euroak eta txapelak. Bigarrenak Juan Carlos eta Jon izan ziren –bi afari Zubiondon–; hirugarrenak Xatur eta Carlos –bi afari Zalainen– eta laugarrenak Iñaki eta Nino –Martikoren lote bana–.



UDALA → BORTZ INBERTSIO EGINEN DIRA

## E-Planetik 300.000 euroko dirulaguntza ailegatuko da aurten

Andra Mari Zahar Etxea moldatzeko 180.000 euro erabiliko dira

Aitor AROTZENA

Enplegurako eta Toki-Egonkortasunerako Estatu-Funtsaren barenan eginen dituen bortz inbertsioak onartu ditu Udalak, PNV eta EAko zinegotzien aldeko botuekin eta Oninen abstentzioarekin. Guzira 300.430 euroko inbertsioak eginen dira. Handiena, Andra Mari Zahar Etxean moldaketa lanak egiteko erabiliko da, 180.005,55 euro. Futbol-zelaiko aldage-la zaharrak egokitzeko 66.999,74 euro erabiliko dira; Sarbide Elektrotikoiari buruzko Legea betetzeko 22.370,68 euro; San Fermin elkartearendako 18.630,59 euro eta Onin erreka bazerrean konponketa egiteko 12.423,26 euro.

Oninek zenbait aldaketa proposatu zituen, berteak berte, aldagelen eta sarbide elektrotikoiaren lanak ez egitea, lehentasunik ez dutelako, eta bere ordez, laguntzaren %20a,

60.000 euro gastu sozialera bideratzea. Honela, Zahar Etxeko gaueko langilearen plaza edo udal langilearena berreskuratzea, baita kultura eta turismo teknikariari laguntza ematea edo musika eskolari dirulaguntza ematea proposatu zuten. Zahar Etxeko proiektuak etorkizunean egin daitezkeen lanak baldintzatzen dituela uste du Oninek eta gaia Patronatuarekin batera lantzeko beharko litzatekeela. Obrei dagokionez, Oninen arabera, Alondigako teilatua moldatzeak lehentasun gehiago du.

Juan Fermin Mitxelena alkateak erantzun zuten Zahar Etxean eginen diren lanek ez dutela etorkizuneko garapena baldintzatzen, lur-eremu dotzionala ez delako ukitzen. Patronatuak Zahar Etxearen funtzionamendua kudeatzen duela, baina inbertsioak Udalak egiten dituela gogorarazi zuten.

**Aita eta aitatzien bazkaria San Jose egunean**

Azkeneko urteetako ohiturari eutsiz, San Fer-

min erretiratuen elkar-  
teak aita eta aitatzien bazkaria antolatu du martxoaren 19an. Txartelak 20 eurotan salgai izanen dira martxoaren 12a bitarte elkartearen egoitzan. Modu berean, martxoaren 8an hasiko dira erretiratuek antolatutako mus, despiste eta seien neguko txapelketak jokatzeko. San Fermin elkarteak otsailaren 20an egin zuen urteko batzarra. Bazkide diren 420 lagunetatik 80 bat bertaratu ziren eta kontent zegoen Carmelo Etxarte presidentea. Hain zuzen, batzordean ez da berririk eta aurtengo ekitaldiei dagokienez ere, ez da aldaketa handirik izanen. Hori bai, lehen aldiz Jakara eta Erronkariko San Martin Harrian uztailearen 13an egiten den Hiru Behien Zergaren ekitaldira joanen dira eskurtsioan. Hurrengo ateraldia apirilaren 16an izanen dute Xabierrera.

**Musika Eskolaren kontzertua martxoaren 12an**

Udal Musika Eskolak kontzertua eskainiko du martxoaren 12an, 17:00etan udaletxeko pleno aretoan.



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

**Zeropean baina bero-bero joan dira inauteriak**

Eguraldi hotzari giro beroa jarri zitzaion inauterietan. Igande arratsean 30 bat zaku-zaharrek bere ibilaldia osatu zuten, aitzinetik ttikiek eta mairuek egin bezalaxe. Goitarrek eta Fraindarrek ere osatu zituzten beraien ibilaldiak auzoz-auzo. Astelehen eguerdian, karroza ikusgarriak ibili ziren plaza inguruan. Ikusgarriena eta irrigarriena, irudian ageri dena: Espainiako Legioa, zaldi eta hori-gorritz margotutako aker eta guzi agertu zen Lesakara.

**Lanchas**  
PARKETAK - TARIMAK  
KUTXILLATZEA ETA BERMIZATZEAK  
ESTALDURA OROKORRAK  
Bera - Tlfnoa: 948 639 735 - 467 406 781

**BOZZ-AID**  
LAVASQUEWA  
Tlfnoa: 91 71 98 0328 - LESAKA

**IRU BIDE**  
Energia - Auzoak  
Bera (Euzk.) 31111 Lesaka  
Tel: 948 637 127

**XATURETXEA**  
ZABALA  
JATETXEA  
T: 948 637 260 - LESAKA



# ETXALAR

ONDAREA → USATEGIAK

## Usategiak ondare kultural izendatu dituen txostenak «akatsak» dituela erran du Herri Taldeak

Helegitea aurkeztuko du izendapenaren kontra

### Joseba eta Nerea

Nafarroako Gobernuak Interes Kulturalako Ondasun izendatu ditu Usategiak, paisaia kulturalaren kategoriaren barrenean. Baina udaletxetik, Herri Taldeko ordezkariak haserre eta arrenkura agertu dute akordio horretan ageri diren akats eta zentzugabekeriak di-rela eta. Udal talde honen erranetan, ez da egia aurkeztutako lau alegazioak aintzat hartu ez direnik eta gainera, izendapenaren barrenean kokatutako zenbait lur-eremu kanpoan gelditu zi-

ren 2009ko erresoluzioan eta planoan ere gaizki dago, orduan onartutako alegazio batzuk ez dituelako kontuan hartzen. Planoa eskuz egina dagoela eta ondasuna non hasi eta non bukatzen den adierazten duen «muga garbirik ez dagoela» ere salatu du.

«Funtsa gutti eta informazio eskasa» duen akordio eta espediente honen kontra errekurtsioa aurkeztuko du, «gauzak okerrago ezin direlako egin». Udalak usategien izendapena begi onez ikusten bazuen ere, tramitatzeko modua ez zaio egokia iruditzen.

### Sua Gorostipaleko Bordan

Inauterietako astelehen ilunabarrenean ika-

## Arrakasta haundiko inauteriak



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN  
Irudiko ile-apaintzaile hauek hurbildutako guztiei ilea moldatzeaz arduratu ziren.

Elurrarekin hasi ziren inauteriak, nahiz eta hau ez zen traba izan **Ortze-gun Gizen** goizean haurrak etxez etxe eskean ibiltzeko. Arratsaldean, berriz, antzerkiak frontoian egin behar izan ziren, elurrak ez baitzuen utzi herrian kalejira egiten. **Igandean**, otsailak 14, kinto bazkariak egin ziren eta **astelehenean**, eguraldi ezin hobearrekin eta animoak gainezka zituztela, gazteak baserriz-baserriz eskean ibili ziren. 60 gazte inguru bildu ziren eta gosalduta ondotik, bi auzotara banatu ziren trikitilarietara. **Asteartea** izan zen egun nagusia. Inoiz baino karroza gehiago atera ziren eta denetik ikusi zen:

futbolariak, ile-apaintzaileak, andaluziarrak, poliziak, baserritarrak, txinatarak... Herriko itzuliaren ondotik, ostatuetan bazkaldu eta 18:30erako jendea frontoira hurbildu zen bertso-pilota ikustera. Honako protagonistek parte hartu zuten: gorritz, Beñat *Babole* eta Jabier *Tolare*, urdinez Xabi *Armitx* eta Xabier Leiza eta bertotan Peñagarikano eta Irazu. Hagitz partida berdindua izan zen eta azkenean gorriek irabazi zuten. Partidaren ondotik, gazteek saskia zozketatu zuten baserrietan izandako harrera ona eskertzeko. Santsiñeneko borda izan zen saritua.

ra ederra sortu zen herrian su-ez kilak aditutakoan. Gorostipaleko bordan sutea piztu zen,

dirudienez, lurreko suak sortuta. Zorionez, denboraz ikusi zuten sua baserriz baserriz es-

kean zebiltzan gazteek eta sua indartu baino lehen itzaltzea lortu zuten denen artean.



- Eskopeten salmenta eta konponketa
- Ehiza eta arrantza goiak
- Ehiza baimenen tramitazioa

armadenda

andueza

Paotxa Eraikina • Gorostlaga, z/g • Anaka Industrialdea  
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN  
c.andueza@euskalnet.net



# ARANTZA

AISIALDIA → SAGARDETEGI DENBORALDIA

## Martxoaren 13an sagardotegira ateraldia antolatu da

### Larunbata da txartelak erosteko azken eguna

Nerea ALTZURI

Sagardotegien saioan gaude. Herrian bertan sagardoa egiten duenik ere bada, eta etxeokoz gozatzeko moduko izaten da dudarik gabe. Halere, eskualdean nola Gipuzkoa aldean bertzelako giroa izaten da eta bat baino gehiagok dagoeneko sagardotegiren batera ateraldia egin izanen du seguraski. Heritik urtero autobusa antolatzen da eta Gipuzkoako sagardotegiren batera egunpasa lotzen da. Martxoaren 13a, larunbata, aukeratu dute aurten, eta herriko ostaluetan autobuserako txartelak har daitezke 10 eurotan. Larunbat hau, hilak 6, da azken eguna.

### Junta berritzeko boto kontaketa

Bi urte pasatu ditu Ekai-

tza Elkarteko oraingo Zuzendaritza Batzordeak, baina orain, junta berritzeko pausoak eman dira araudian oinarrituz. Joan den hilabete hasieran elkarteko bazkideei gutuna bidali zitzaien 99 lagunen izenak agertuz. Hamar lagun aukeratu behar zi-

tuzten bakoitzak eta joan den larunbat ilunabarrean botoak jendarean kontatu ziren. Lerro hauek idazterakoan hamar lagun bozkatuek nor izan diren ezin izan dugu jakin. Beraz, hurrengo alean elkarteko batzorde berriaren emanen dugu.

Gogoratu, bi urte hauetan zuzendaritza taldea Dabit Iturria, Ixidor Goia, Iñaki Alustiza, Jabiertxo Iparragirre, Iker Iguzkiagirre, Jose Luis Iparragirre, Mirari Maiz, Estitxu Iparragirre, Aitziber Almandoz eta Gurutze Pika-beak osatu dutela.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

### Mozorro Besta hilabeteko azken larunbatean

Martxoaren 27an Mozorro Besta egingen da. Urte batzuk joan dira eta inauterien ondoko hitzordua aurten ere prestatu dute Mozorro Xuriek. Ohitura den bezala, meza ondotik herri kirol saioa egingen da frontoian eta gero bertso afaria. Argazkia duela urte batzuk ateratakoa da, baina urtero urtero herri kirol ikuskizun –edo apustu– ederra antolatzen dute Mozorro Xuriek. Ea aurtengoan zer egiten duten. Zehaztasun gehiago hurrengo kronikan.

### FLASH

#### Parrokiko diru kontuak

Urte berria hasi orduko herriko apezak aitzineko urteko parrokiko egoera ekonomikoaren inguruko xehetasunak idatziz ematen ditu.

2009. urtea 174 euroko superabitarekin akautu du parrokiak, diru sarrerak 6.992 eurokoak izan dira. Multzo horretan Elizan, gosearen aurkako kanpainan, Domun egunean eta Elizbarrutia- ren alde bildutako dirua nahiz apezari mezak ateratzeko emankoa sartu dira. Urte hasieran zegoena 67 euro izan zen.

Bertzalde, gastuetan, parrokiko argia eta begailuko gasoila, zenbait kanpainerako bidalitako dirua eta Elizarekin lotutako zenbait ospakizun eta gaietan nola bertzelakoetan gastatutako sosa daude. Denetara, iaz 6.818 euroko irteerak edo gastuak izan ziren. Honekin batera, Behar-Bidasoa Gobernu kanpoko erakundearentzat herrian nahiz Igantzin 1.188 euro bildu dira. Gisa berean, herriarrek emankoa laguntza eskertzen du parrokiak idatzian.

**BAZTAN BIDASOAKO sagardotegiak**

LARRALDEA      LINDDURRENBORDA

**LARRALDEA eta LINDDURRENBORDA**

Dolarea Txotx denboraldia irekia Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA      LINDDURRENBORDA  
 Indurri sarea - LEKARROT      Indurri sarea - LESAKA  
 948 402021 - 629 414317      948 637212

**ARTEKARI TALDEA**

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontrabutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Siltirio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050  
 BURELATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

# SUNBILLA

KIROLA → APUSTUA

## Martxoaren 19an gazteen arteko apustua izanen da

Herriko bortz gaztek euren artean egin dute desafioa

**Jaione OTXANDORENA**

Apustu gosez dabil-tza inguruko gazteak nonbait, eta Sunbillan ere izanen dugu apustuaz gozatzeko aukera. Izan ere, martxoaren 19an, San Jose eguna besta dela aprobetxatuz, 12:30ean frontoian Unai Bertiz harri-jasotzaile gaztea, bertze lau herri-eratar gazteren kontra lehiatuko da: Luis eta Javier Ibarra anaiak eta Andoni eta Imanol Apeztegia lehengusuak.

Unai egin beharreko lana hauxe izanen da: 100 altxaldi eman 100 kiloko harriari. Eta bertze lau gazteek, berriz, 100



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Unai Bertiz gaztea hain ongi moldatzen den lanean ariko da martxoaren 19ko apustuan, harri jasotzen, hain zuzen.

koxxor bildu beharko dituzte. Aipatu beharra dago, lau gazteek ezin izanen dutela bakoitzaren 25 koxxorrek bildu arte lagunari erreleboa pasatu. Epaille lanetan Antton Espelosin ariko da.

### ETBren alde sinatzeko aukera maiatzera arte

ETB Nafarroan ikus-tereko sinadura bilketa maiatzaren 10a arte luzatu da.

# DONEZTEBE

GIZARTEA → BATERAGARRITASUNA HELBURU

## Berdintasun eta kontziliazio ituna sinatu dute 14 eragilek

Familia, lana eta bizitza pertsonala bat egin nahi ditu

**TTIPI-TTAPA**

Familia, lana eta bizitza pertsonalaren bateragarritasuna helburu duen ituna sinatu zuten herriko hainbat gizarte, kirol eta kultur eragilek otsailaren 19an Herriko

Etxean. Erakunde hauek egin dute bat ekimenarekin: Udala, Arkupeak erretiratuen elkarteak, Mendaur eta Erreka guraso elkarteak, San Miguel Ikastetxea, Mendaur Insitutua, Askin Haur Eskola, Ezpelura Emakume Elkarteak, UAGN, Osasun Zentroa, Nafarroako Enplegu Zerbitzua, CA-ISS, Doneztebarrak Merkatarien Elkarteak eta Cederma-Garalur.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Herriko Etxean sinatu zuten ituna otsailaren 19an.

Altozo 1 - BERA  
Tfn: 948 631 446

Tel: 948 631 076 - BERA

Dietetika eta elikadura  
Ikar Andueza Larra  
Itza, 6 behe - BERA - Tel. 948 631 283 - elikabera@hotmail.com

- Ahulakuntza dietetiko eta nutricional
- Dieta personalizatua
- Gaitur konposatuaren azterketa
- Elikadura heziketa
- Zikloa osatutako
- Zikloaren egiteko erretze erretze
- Kostu erretze eta erretze
- Herriko erretze

nekazari kooperatiba  
ganaduarentzat pentzurik egokiena  
Tel: 948 635 214 - ITXALAE

UNE-EN-ISO 9001  
LAC  
SQC-02-0199

Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua  
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest

Alkaiaga ind. - Banarta, 8 - 23 pabiloia - LESAKA - Tfn: 948 631 536 - Fax: 948 631 560

denda, jatebeka eta ostalua  
Ongi zaindutako sukaldaritza  
Menuak aukeran

Tabakoa  
Likorrak  
Janaidenda  
Urdategia

Ibardingo Lepoa - 948 631 209



UDALA → AURREKONTUA

## 2,15 milioi euroko aurrekontua onartu du Udalak 2010erako

Halere, oraindik aldaketak izan daitezke aurrekontuan

### TTIPI-TTAPA

2.150.000 euroko aurrekontua onartu du Udalak urte honi begira. Dena den, dirulaguntzen esperoan, zenbait inbertsio aurrekontutik kanpo utzi ditu.

Futbol-zelaia egiteko, adibidez, dirulaguntza hartzea da Udalaren asmoa eta horretarako Espainiako eta Nafarroako Gobernuen akordioak sinatzeko harremanetan dago. Horrela baieztatu digu Miguel San Miguel alkateak. Izan ere, 1.300.000 euro gostatzen da eta aurrekontuan 350.000 euroko diru-saila gorde dute futbol-zelaiarako. Nafarroako Kutzaren *Zukaukeratu*, *zuk* erabaki proiektuaren barne ere aurkeztu dute egitasmoa. Alkateak erran digunez, «proiektua aitzinera ateratzekotan, aurrekontuan aldaketa batzuk eginen genituzke».

Aparan inguruan eraikiko litzateke futbol-zelaia, hirigintza konbenioarekin herriaren esku gelditu den lurzati batean.

### EGUNEKO ZENTROA

Udalaren aspaldiko nahia da adinekoentzako eguneko zentroa eraikitzea. Horretarako, ordea, hiru milioi euroko gastua aurreikusia dago eta hau ere ez dago aurrekontuaren barranean sartua, oraindik Gobernuak onartu gabea duelako, «Foru Aginduaren esperoan gaude», adierazi du San Miguelek. Halere, Udalak badu non eraikia.

### OBRAK HERRIKO ETXEAN

Bertze hainbat konponketa ere egin nahi ditu Udalak eta horretarako dirulaguntza eskatu du estatuko planean. Batetik, 135.424 euro eskatu ditu udaletxeko beheko solairua zaharberritu eta igogailua paratzeko, «igogailua beharrezkoa da, zerbitzuak lehenbiziko solairuan baitaude». Hirurteko Planean udaletxea osorik moldatzeko es-

kaera egin zuten, baina atzera bota zuen Gobernuak. Denborarekin bertze solairuak ere konpontzea da Udalaren nahia, baina momentuan beheko solairua egitea erabaki da.

Bertzalde, 4.408 euro eskatu ditu sistema informatikoetarako eta 33.248 euro bertzelako gastuetarako: «zerbitzu aunitz eskaintzen dira eta gastu handiak sortzen dira».



ARGAZKIAK: ALICIA DEL CASTILLO

### Hotzari aurpegi ona inauterietan

Hotzak ere ez du zapuztu inauterietako giroa. Ortzeguneko triki poteoarekin hasi eta larunbata arte, ederki pasatu zuten herritar zein kanpokoek. Larunbateko karrozen desfilean denetariko mozorroak ikusi ziren, eta tartean argazkikoak: Assterix, Obelix eta kuadrilla, Mariezkurrenaren 1930eko autobusa, erromatarrak...

### FLASH

#### Segurtasun neurriak eskolan

San Miguel ikastetxean sarrera eta irteerako ordutegietan segurtasun neurriak hobetuko dira Udalaren, ikastetxearen eta bertze gizarte eragileen artean. Halere, horretarako bizi-lagunen eta batez ere autogidarien laguntza eskatu dute. Nafarroako Ingurumen Baliabideen Zentroak (CRANA) gaiaren inguruko jardunaldi informatiboa eskaini zuen joan den hilabetearen. Autoa etengabe erabiltzeak sortzen dituen kalte eta arriskuen inguruan aritu ziren eta neurriak hartuta, oinez gehiago ibili eta karriketak gehiago gozatu litzatekeela nabarmendu zen.

#### 'PEDIBUS' ESPERIENTZIA

Guraso Elkarteak *Pedibus* esperientzia jarri nahi du martxan. Horren bidez, gurasoek hartuko lukete ikastetxeko sarrera-irteeren ardura eta eurek arduratuko lirateke ikasleei ikastetxera laguntzeaz.

#### Xabierrera ateraldia

Urtero bezala, Javiera dan parte hartzeko autobusa antolatu du Erreka Kiroi Elkarteak. Martxoaren 13an, larunbata, izanen da. Apuntatzeko Titi Ostaturajon behar da edo 948 450271ra deitu. Autobusaren prezioa 15 eurokoa izanen da bazkide ez direnentzat eta 12 euro bazkideentzat. Irteera 05:00etan izanen da eta Iruñean geldituko da. Handik Xabierrera dauden 42 kilometroak oinez egin beharko dira. Itzulera autobusak Xabierrera hartu dira.

MERTZERIA  
*Leñe*  
LENTZERIA  
Tel: 948 627 614  
Deñeko Plaza, 10 - LESAKA

SOBEKO  
GURE HERRIAREN HERRI  
Frain Auzoa - LESAKA  
Tlf: 948 637 826

Alberto RETEGI  
abokatu  
abokatu  
© 948 630 763 - Aitzate, 17 - BERA

## ITUREN

AZPIEGITURAK → ESPAINIAKO GOBERNUAREN DIRULAGUNTZAREKIN

# Estatuaren laguntza osasun kontsultako lanekin segitzeko erabili nahi du Udalak

51.997 euroko dirulaguntza egokitu zaio Udalari

## Arkaitz MINDEGIA

Espainiako Gobernuaren aurtengo dirulaguntza deialdian, 51.997 euro egokitu zaizkio Udalari. Joan den urtean ere eman zuen Espainiak laguntza (107.255 euro) eta mutikoen eskola zaharraren egitura konpondu eta etorkizunearn mediku kontsulta egiteko lanen fase bat egiteko erabili zen.

Aldi honetan, iaz hasitako lanari segida eman nahi dio Udalak eta hartuko den subentziotik 50.187,40 euro kontsultako lanen bigarren faserako erabiliko

dira. Gainerakoa, 1.809,60 euro, ordenagailuentzat suebakiak jartzeko eskatu du.

## Garbiñe Olazar Haur Kantari Jaialdian

Haur Kantari Jaialdien bigarren kanporaketa jokatu da larunbat honetan, martxoak 6, Elizondoko Lur dantza lekuan. Eta azken urteetan bezala, Garbiñe Olazar herritar gaztea han izanen da.

Alde batetik, bakar-kako lanean ariko da eta Ken Zazpi taldearen *Iluntzean* abestia kantatuko du. Baina bina-kako ere ariko da, eta Naia-rra Aizpuru donamariarra lagun duela Ken Zazpiren *Ilargia* abestuko du. Zorte on!



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

## Irabazi ez, baina lan ederra bai

Otsailaren 21ean Donezteben egin zen aizkora apustuan garaipenik gabe gelditu ziren Joseba Andiarena *Bordazuri* eta Juanito Mariezkurrena *Arroxene*. Herritar aunitz hurbildu zen Doneztebeko pilotalekura eta ez zituzten animoak faltan izan, baina Mindegiatarrak nagusitu ziren. Bi bikoteek denbora ona egin zuten eta sasoi onean daudela erakutsi zuten. Irabaztea lortu ez arren, zorionak bie!

**ANTZUZELAI**  
ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK  
Tel. 948 631 317 • Fax: 631 587  
Iturgo errep. BERA  
www.antzuzelai.com  
info@antzuzelai.com

Antzinaideak, angeluak, oma antzinskoak, leihoak, ateak, arkuak, pilareak, tximiniak, enfaizak, moldurak, zokaloak, hilariak, marrazkiak

**Javier Manterola**  
Tehnika instalatzailea  
Iturgintza • gasa  
kalifikazioa  
Tfnoa: 529449602 • BERA

**ttipi-ttapa**  
www.ttipi.net

**APARAN, S.A.**  
BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarniak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab.

Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
DONEZTEBE

**PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaia
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA  
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN



AZPIEGITURAK → ESPAINIAKO GOBERNUAREN DIRULAGUNTZAREKIN

## Herrira sartzeko zubian hormigoia botako du Udalak

### 33.945 euroko laguntza iragarri du Espainiako Gobernuak

#### Fermin ETXEKOLONEA

Espainiako Gobernuaren Tokiko Enplegu eta Iraunkortasunerako Estatu Funtzaren Programaren bidez, 33.945,60 euroko dirulaguntza hartuko du Udalak, eta diru hori nagusiki herri sarrerako zubia konpontzeko eta karriketan losak paratzeko erabiliko du. Zubia egoera txarrean dago, eta hezetasun handia dagoelako edo, brea segidan altxatzen da. Hortaz, Espainiako finantzazioarekin hormigoia botatzea erabaki du Udalak, eta Nafarroako Gobernuak proiektua onartu dio.

Herri guztiarentzako sarbidea da zubia, baina lanak egiteko baliteke mozketaren bat edo beste egin behar izatea. Baina hori, momentua ailegatzean jakinaraziko zaie herritarrei.

#### JOAN DEN URTEAN MARKESINA ETA HERRIKO BIDEAK

Iaz ere dirulaguntza eman zuen Espainiako Gobernuak. Orduko hartan, 54.689 euro hartu zituen Udalak eta subentzio hori markesina

birmoldatu eta herriko bideak moldatzeko erabili zen.

#### Emakumeen afaria larunbatean

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna

izanen da martxoaren 8an, eta horren harira, afaria antolatu dute herriko emakumeek larunbat honetan, martxoak 6. Herriko Ostatuan izanen da otordua eta joan nahi duenak Okindegian edo Herriko

Ostatuan dauden zerrendetan eman behar du izena. Aipatu, afaria 30 euro gostako dela, baina horrez gain, musika ere izanen da afalondoan Joxe Mari Moja eta bere lagunekin eta hori aparte pagatu behar da.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

#### Mindegiatarrak nagusi

Ikuskizun ederra eskaini zuten otsailaren 21ean Mieltxo eta Hilario Mindegiak eta Joseba Andiarenak eta Juanito Mariezkurrenak aizkora apustuan. Lau aizkolariak ere oso ongi aritu ziren, eta eskertzekoa da horrelako erakustaldia eskaini izana. Baina herritarra tartean denez, lerro hauen bidez, zorionak Mieltxori eta bere osaba Hilariori. Argazkian garbi ikusten da zeinen kontent gelditu ziren apustua irabazita, ez da gutxiagorako.

#### Ander Fuentes finalurrekoen zain

Igande honetan, martxoak 7, Atarrabiako Indurain Anaiak Kiroldegian jokatuko den hirugarren eta azken finalurrekoaren ondotik jakinen du Ander Fuentes Itturri bertsolariak finalerako txartela eskuratuko duen ala ez.

Otsailaren 20an, Etxarri Aranatzen egin zen lehenbiziko finalurrekoan aritzea tokatu zitzaion Fuentesi, eta sailkapenean bosgarren gelditu zen, 370,5 punturekin. Beraz, igandera arte zain egon behar du gugu aurten bigarrenez finalean izanen den ala ez jakiteko. Ea hala den!

**elier**  
escuelaimagenpersonal

943 013 627  
www.elier.eu | elier@elier.eu  
ADUANA 27 IRUN

**ZURE PRESTAKUNTZA MERKE ATERAKO ZAIZU**  
**ESTETIKA ETA ILE-APAINDEGIKO KURTSOAK**

LANGABEZIKO TXARTELA BALDIN BADUZU **%40** ko deskontua duzu  
ETA, GAZTE TXARTELA BALDIN BADUZU **%25** eko deskontua

**KOLOREA • ILE-MOZKETA • MANIKURA • MAKILLAJEA • DEPILAZIOA • PEDIKURA**

# BASABURU TXIKIA

OSPAKIZUNAK → INAUTERIAK

## Saldias, Eratsun eta Beintza-Labaiengo ikasleek Saldiasen ospatu dituzte inauteriak

Herriz herri ibiltzekoak ziren baina elurraren ondorioz, Saldiasen egin zuten besta

### TTIPI-TTAPA

Eguraldiak oztopoak jarri arren, Saldias, Eratsun eta Labaiengo ikasleek ez dituzte ospatu gabe utzi aurtengo inauteriak. Hasiera batean, otsailaren 12an, mozorrotu eta herriz-herriz ibiltzekoak ziren, baina elurra egin zuelako ezin

izan zuten. Hortaz, herriz herri egin beharrean, Saldiasen biltzea erabaki zuten. Eta halaxe egin zuten otsailaren 19an.

### JOLASEAN

Handiak margolariz eta txikiak musika bandaz mozorrotu ziren eta jolasean ibili ziren: erraketan, soka saltoan, baloi eserian... Eta elkarrekin bazkaldu zuten. Festari behar bezalako bukaera emateko, merendola bat egin zuten. Eskolatik adierazi dutenez, «oso ondo pasatu zuten».



ARGAZKIAK: MAITE ARTZE

Egun konpletoa eduki zuten hiru herrietako ikasleek otsailaren 19an: mozorrotu, jolasean ibili, bazkaldu, merendola goxoa egin... Errepikatzeko moduko esperientzia.

**ELGORRIAGA**  
BALNEARIO - BAINUETXE

**FLOTAZIOA**  
etorri probatzera!

**berdinak gara, desberdinak gara**  
**ura gara, osasuna gara**

Etorri Balneariora eta kontsultatu inoiz baino ekonomikoagoak diren gure bono berriak eta ordaintzeko ematen ditugun erraztasunak

Errotaldea z/g 31744 Elgorriaga (Nafarroa) Tel. 948 45 60 45 · www.balnearioelgorriaga.com



IZENDEGIA → EUSKALTZAINDIAREN PROPOSAMENA AINTZAT HARTUZ

## Herriaren izen ofiziala 'Urroz' izanen da hemendik aitzinera

Ahoskeran horrela erabiltzen delako hartu da erabakia

### Joseba URROTZ

1989an erabaki zuen Nafarroako Gobernuak gure herriaren izen ofiziala *Urrotz* izanen zela. Baina berriki, Euskaltzaindiak Nafarroako herrien izendegia onetsi du, eta Andres Iñigo Ariztegi buru duen Onomastika batzordeak Euskarabideari eskatu dio gure herriaren izen ofiziala –orain arte *Urrotz*– aldatzeko behar diren tramiteak egin ditzala.

Proposamen hau *Nafarroako herri-izenen bukaerako txistukaria*

*eta toponimoen arau-tzea izeneko txostenean eta Nafarroako udal Izendegia izeneko 155. arauan oinarritzen da.*

Euskaltzaindiaren araudi horretan ageri denez, «Malerrekako *Oitz* eta *Urrotz* toponimoen kasuan, bertako ahoskeraren arabera, *Oiz* eta *Urroz* izan behar dute». Alegia, solasterakoan bi herri hauetan horrela erabiltzen dugulako egin da aldaketa.

### UDALAK ERE ONARTU DU

2010ko ilbeltzaren 26an egin zen osoko bilkuran onartu zuen Udalak Euskarabideak egindako proposamena, eta beraz, hemendik aitzinera gure herriaren izen ofiziala *Urroz* izanen da.



UTZITAKO ARGAZKIAK

### Mozorroa bakoitzak berea baina umorea guztiena

Aste batzuk pasatu badira ere, hona hemen gazte talde batek baserriz-baserri zein ongi pasatu zuenaren froga. Ea hurrengo urteetan ere segitzen den ohitura honekin!

**bainuontziaren ordezkari dutxa jartzeko sistema azkarra**

628 768 162  
650 302 835

**UREDER**

**Egun bakar batean Obra gogaikarririk gabe**

**Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe**

Zure bainuontzi zaharraren ordezkari jar ezazu dutxa praktiko bat berriz azulejua jartzen ibili beharrik gabe

# LEGASA

ERAKUSKETA → HERRIKO ARGAZKI ZAHARRAK

## Argazki zaharren erakusketa egingen da aste hondar honetan eskolako gimnasioan

15:30etik  
18:30era  
egonen da  
zabalik

DATUA

100

**ARGAZKI**  
baino gehiago  
bildu dira erakusketan.

### Nafarroan ETB ikusteko sinadura bilketa

Bertizaranako Udalak, bertze hainbat tokitan bezala, ETB Nafarroan ikusteko esku-bidearen aldeko sinadura bilketa abian jarri du. Nahi duena udaltxera hurbiltzen ahal da bere sinadura ematera eta bide batez eskubide honen alde egitera. Sinatzeko azken eguna maiatzaren 10a izanen da.

### TTIPI-TTAPA | LEGASA

Larunbat eta igande honetan, martxoak 6 eta 7, argazki zaharren erakusketa egingen da eskolako gimnasioan. Ur-tarriletik orain arte egin den bilketarekin osatu da eta antolatzaileek herritarren parte-hartzea eta eskuzabaltasuna eskertu nahi dute lerro hau- en bidez. Ehundik goiti argazki bildu baitira.

Bai larunbatean eta bai igandean ere, ordu- tegia bera izanen da: 15:30etik 18:30era.

Antolatzaileek argazkiak ikusteko gonbi- dapena luzatu diete bai herritarrei eta bai kan- potar guztiei ere.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ez da oraingo argazkia ez horixe, 56 urte inguru baditu. 1954 aldera, Teresa Erasorekin ageri dira eskolako haurrak.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Giro ederrean joan dira inauteriak

Eskertzekoa izan da inauterietako giro eguzkitsu eta epela. Giroan aunitz nabaritu baita. Aurreko alean erran bezala, ortzireako puska biltzearekin eman zitzaian hasiera aurtengo inauteriei eta larunbateko mozorro desfile eta bazka- ri-afari eta djotarekin akitu ziren.



**estatxa**  
centro náutico

5  
**BIDASOAKO AKADEMIA NAUTIKOA**  
Itsasgintzarako tituluak lortzeko Eusko  
Jauriaritzak homologatutako akademia

Itsasontziko patroia:

- ONP (Oinarrizko Nabigazioko Patroia) PNB
- LOP (Laketontziko Patroia) PER
- Yateko patroia



OSPAKIZUNAK → INAUTERIAK

## Haur, gazte zein helduek gozatu dute inauterietan

Gazte eta haur talde haundiak ibili dira etxez etxe eskean

**TTIPI-TTAPA | NARBARTE**

Inauterietako ospakizunei hasiera ematen lehenbizikoak neska-mutiko gaztetxoak izan ziren. Elurrak eta hotzak ez zituen beldur-tu, eta otsailaren 11n, Ortzegun Gizen egunean, eskean ibili ziren herrian barna, euren moztorroak jantzita.

Asteburuan gazte-en txanda izan zen. Otordu ederrez gozatzeko eta etxez etxe es-

kean ibiltzeko aukera izan zuten, elurra eta giro hotza goxatuz. Aurten ere gazte kuartilla ederra elkartu zen eta giro ederrean ibili ziren. Inauteriei bukaera emateko, igandean, bazkari, afari eta mus-txapelketa egin ziren Herriko Ostatuan.

### Nafarroan ETB ikusteko sinadura bilketa

Legasako kronikan aipatu bezala, ETB Nafarroan ikusteko eskubidearen aldeko sinadura egin nahi duenak maiatzaren 10a izanen du azken eguna.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Hotzak eta elurrak ez du inauterietako giroa zapuztu.



## Abonatu LESAKAra

### ABONATU BERRIA

%20ko DESKONTUA SARRERAKO MATRIKULAN  
HILABETE BATEKO KUOTAREN DESKONTUA  
(1. go urtean, urteko azkeneko kuota doan)

### 2X1 KANPAINA

MATRIKULA ETA HILABETE BAT DOAN  
(1. go urtean, urteko azkeneko kuota doan)

(Eskaintza honek 2010eko apirilaren 30a arte balio du)

**Galdetu Kiroldegian dauden eskaintza guztien informazioa**

INFORMAZIOA: Tel: 948 637 400 | e Postak: lesaka@urdisi.com



# GOIZUETA

UDALA → AURREKONTUA

## 1,4 milioi euroko aurrekontua onartu du Udalak, %24an murriztuz iazkoa

Zubi Haunditik Zibola arteko lanetarako 138.000 aurreikusi dira

### Esteban AROTZENA

Krisiak horretara behartuta edo, iazko diru kopurua %24an jaisten duen aurrekontua onartu du Udalak ahobatez 2010erako, hau da, 1.402.319 eurokoa. Gogorazi dezagun, 1.833.000 eurokoa zela 2009koa.

Gastuei gainbegirada emanez, esan, udal langileen eta mota askotako kontzeptu orokorrek osatzen dituztela puskarik gizenenak. Hortik kanpo, eta inbertsioen arloan, aipagarriak dira Zubi Haunditik Zibola bitarteko eskoilera-pasealekuarentzat aurreikusten diren 138.000 euro; Maioberriko pistaren 98.000 euro; eta industria pabiloia erosteko erabiliko diren 98.000 euro. Hainbat mendiren landaketa kanpainarako, berriz, 300.000 euro beharko dira, baina dirutza honen portzentaia haun-

dia, %80 inguru, Nafarroako Gobernuak subentzionatuko du.

Diru-sarrerei dago kienean, aipatzekoa da, menditik sartzea espero dela -sektorearen krisiak krisi-, diru kopururik garrantzitsuena, 436.000 euro, hain zuzen. Zerga eta tasek eta Iruñetik etorriko diren dirulaguntzek osatzen dute, besteak beste, eta ohi den bezala, 2010eko aurrekontuen diru-sarrereren zerranda.

### Komunala: beste pauso bat

Otsailaren 13ko komunalaritari buruzko herri batzarra arrakastatsua suertatu zen, dudarik gabe. Nafarroako Gobernuarekin aurretik adostutako proposamenaren berri eman zuten alkateak udaletxean bildutako 50 herritarrei. Hauek orokorrean on-tzat jo zuten gainera, han entzundakoa.

Orain, eta beste pauso bat emanez, adostasun horren berri eman behar diote komunalaritari erabiltzaileek Udalari. Horretarako nahikoa da Herriko Etxera joatea edo oraindik erra-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Udalak ahobatez onartu du 2010eko aurrekontua.



ARGAZKIA: LURDES LOIARTE

### Batukada hotsekin kale bazterrak alai-alai

Inauterietako programa potoloaren barrenean, otsailaren 12an, eskolako neska-mutiko eta irakasleek mozorrotuta herriari bueltaxka eman zieten. Urtero egiten dute kalejira hau eta aurtengo gaia Batukada izan en. Ederki animatu zituzten kale bazterrak, eta herritarrek ere pozik hartu zituzten.

zago, telefonoaz deitzea. Informazioa ere bertan emanen zaie interesatuei. Hil honen bukaera aldera, eta proposamenak espero den atxikimendua jasotzen badu, akordioa sinatuko dute Udalak eta Nafarroako Gobernuak.

eta kalitateko harremanen aldeko hitzaldi zikloa emanen du Ainhoa Saizek ondorengo hiru asteleheneetan: hilaren 8an, 15ean eta 22an. Guraso Eskolak antola-

tutako ekitaldi hau 15:00-etatik 17:00-etara izanen da eta hitzaldira doazen gurasoen umeak zaintzeko begirale zerbitzua eskainiko da.



### Baialtzinikin...

Gasteizko kajoiaren batean urteetan izoztuta eduki ondoren, Eusko Jaurlaritzak berriz mahaigainera atera duela Mandoegin 28 haizeerrota instalatzeko proiektua?

### Tratu txarren prebentzioa hizpide

Tratu txarren prebentzioa

**Kulturkari**  
Laguntza ekonomiko  
Tartean daudenak  
Irteerak, inbentariak, kargutarako, gidatutako, fakturak...  
Herriak, egoitza eta irudi korporatiboa  
Eskatzen dugun informazioa gurekin partekatu!

**BEINTZAKO OSTATUA**  
☎ 948 45 00 14  
web: www.beintza.com  
www.beintza.com  
11701 BEINTZA LARREN  
ORBELA

**ola SAGARDOTEGIA**  
250 lagun eserita  
Klimatizatua  
Sagardotegiko menua  
102 Meaka auzoa - 20304 IRUN - Tfnoa 943 623 130




SINADURA BILKETA → NAFARROAN ETB IKUSTEN SEGITZEKO

# ‘Mugarik gabeko telebista’ sinadura bilketa maiatzaren 15era arte zabalik

Epea luzatzea erabaki du ekimena abiatu duen elkarteak

## TTIPI-TTAPA

*Mugarik gabeko telebista* kanpainaren alde sinadurak biltzeko epea otsailaren 25etik maiatzaren 15era luzatu dute. Ekimena abian paratua duen Acció Cultural del País Valencià elkarteak adierazi bezala, kanpaina eritimo onean doa, eta dagoeneko 400.000 sinaduratik goiti bildu dira, baina gehiago behar dira, 500.000ko kopurua ga-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

*Mugarik gabeko telebista* –katalanez, *Televisió sense fronteres*– kanpainan sinatu behar den agiriaren eredu.

inditzea beharrezkoa baita.

Herialde Katalanetan hasitako kanpaina

Hego Euskal Herrira hedatu zen Nafarroan Eus-

kal Telebistan ikusten segitzeko eta eskubide hori legez bermatua izan dadin eskatzeko. Hala, urtarrilaz geroztik sinadurak biltzen aritu dira herrietako udalak eta Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza eta Kontseilua eta parte-hartzea «oso inportantea» izaten ari dela adierazi du Euskaltzaindiak, Nafarroan batez ere, helburua ETB Nafarroan ikusten segitzea baita.

18 urtetik goitiko herritarrek dute sinadura egiteko aukera eta datuak NAN-ean ageri diren bezala idaztea ezinbertzekoa da, bertzela, ez baitira onartuko.

## LEITZALDEA

GIZARTEA → MARTXOAREN 5EAN, 8AN ETA 12AN EKITALDIAK

# Emakumeen Mundu Martxaren harira hainbat ekitaldi izanen dira Leitzan

Ekitaldi nagusia martxoaren 12an izanen da

## TTIPI-TTAPA

*2010 arrazoit ditugulako martxan jarraitzeko eta urratsak emanaz hartu martxa feminismoarentz* lemapean hainbat ekitaldi prestatu ditu Leitzaldeko Bilgune Feministak datozen egunetarako.

Ostiral honetan, hilak 5, Euskal Herriko Emakumeen Eskubideen Kartaren banatuko da azokan eta Amazabal Institutuan. Eskutitz honek herritartasun kontzeptua berdefinitzea du helburu, kontzeptu horretatik kanpo gelditu izan delako emakumea.

Larunbatean, martxoak 6, *emakumea eta lana, prekaritateari aurre eginez!* izanen da hizpide. Hala, *Gona*

*Gorontza* bideoa ikusgai izanen da arratsaldean Leitzako tabernetan. 20:00etan Aurrera elkartean bideoa eta kafe tertulia izanen dira.

Martxoaren 8an, Emakume Langilearen Nazioarteko Egunean kontzentrazioa egingen da 20:00etan Lopeneko biribilgunean. Amazabal Institutuan, berriz, 10:15ean bideo emanaldia izanen da, eta ondoren, kontzentrazioa.

Martxoaren 12an, azkenik, Euskal Herriko Martxa eskualdera ailegatuko da. 18:30ean txokolatada izanen da plazan eta egun guztian eskualdeko aldarriak bilduko dituen murala pintatzen ariko dira plazan. Arratsaldean herriko haur eta gaztetxoek ere murala margotzeko aukera izanen dute.

20:30ean, Mundu Martxa Leitzara ailegatzten denean, harrera pla-

zan egingen zaio dantzari, Jeiki Abesbatza eta bertsolariekin. Testigantza liburua osatuko da herriko emakumeen aldarrikapenekin.

Segidan, Atekabeltzan afaria izanen da. Sarrerak Torrean eta Gaztañagan egonen dira salgai 10 euroren truke, hilaren 10a bitarte. Gauean kontzertua izanen da Komo tu taldearekin. Sorpresak ere iragarri dituzte antolatzaileek.

## LEITZA

UDALA → HIRIGINTZA

# Landa Goikoko etxebizitzetan izena emateko epea hilaren 15ean bukatuko da

40 etxebizitza babestu egiteko lanak hasiak dira

## TTIPI-TTAPA

Otsailaren 15az geroztik, Landa Goikoa eremuan egitekoak diren etxebizitza babestuetan izena emateko epea zabalik dago eta martxoaren 15era bitarte irekita egonen da. Interesatuak udalera jo behar dute horretarako.

Udalak 40 etxebizitza egiten ditu eremu honetan, eta horietatik 24 babes ofizialekoak eta 16 tasatuak izanen dira. Baina orain zabaldu dituzten izen-emateko zerrenda horiek 40tik 32 etxebizitzentzat dira eta Nafarroan erroldatuak daudenez izanen dira; gainerako zortzien zerren-

dak beranduago zabalduko dira eta horietan herritarrek izanen dute lehentasuna.

Pisu berri hauek egiteko lanak martxa onean doazela dirudi.

## LANDA BEHEKOAN ETXEBIZITZA GEHIAGO

Landa Goikoko egitasmo hau bi zati dituen proiektu baten lehen fasea baino ez da. Izan ere, Landa Behekoan 216 etxebizitza egitea aurreikusia du Udalak. Kasu honetan, 166 babes ofizialekoak izanen lirateke, eta gainerakoak libreak. Abenduaren 30ean onartu zuen Udalak ahobatez proiektu hau, eta orain tramitazioak egiten ari dira. Xabier Zabalo alkatearen irudiko, tramitazioetan «urte bat eta erdi-bi urte artean joanen dira» eta dena egiterako «urte gehiago».



ARGAZKIA: SAGRARIO LASARTE

## Berria Pilota Txapelketan aurrera

Urtarrilaren 22an Usansolo taldeari irabazita, bigarren kanporaketarako sailkatu ziren Aurrerako pilotariak eta Hernaniko taldearen kontra aritu zen otsailaren 19an. Baita irabazi ere. Kadeteetan, Anartz Olanok eta Hernadorenak 22-12 irabazi zieten Hernaniko Urkizu eta Murgiondori; jubeniletan Santxo-Lizeaga Gipuzkoako bikoteak 22-19 irabazi zieten Jaunarenatarrei. Maila nagusian, azkenik, Esain pilotari profesional ohia aritu zen Leitzako taldean, Mikel Iriarte atzean zuela, eta 22-13 irabazi zieten Ojuel eta Gorrotxategi hernaniarrei. Fase hau gaindituta, hurrengo faserako saltoa egin du Aurrerak, eta Markinaren aurka ariko da martxoko bigarren asteburuan.

## BARATZE PUBLIKOAK

Landa ingurua eremu berde bihurtu nahi du Udalak, eta Zabalok azaldu digunez, «errekaren beste aldean metro asko geldituko dira Udalen esku eta hor baratze publikoak egiten dira». Baratze horiek bost urterako aprobeixamendua erekin herritarren esku uztea da Herriko Etxearen nahia.

Bestalde, lur horretan osasun etxe berria ere egin nahi luke. Eta horretarako, lurzati bat Nafarroako Gobernuaren es-

ku uzteko prest dago.

## Ereleta eskolan lanak

Lehen Hezkuntza eta Haur Hezkuntzako ikasleak toki berean biltzearen aldeko apustua egin nahi du Udalak. Gaur egun, 3-6 urtekoak garai bateko nekazaritza eskolan daude, eta Ereleta zaharragoak. Baina Ereleta ikastetxeko hirugarren solairuan, bere denboran irakasleen bizileku izan zen tokian, obrak egin nahi ditu Udalak eta 12 ikasgela eraiki. Hartara, ttikienek horizanen

lukete ikasteko tokia.

Horretarako 310.000 euroko laguntza eskatu du Espainiako Gobernuaren Tokiko Enplegu eta Iraunkortasunerako Estatu Funtsaren Programan. Irakaskuntza zentralizatzeke helburuarekin aurkeztu du proiektua Udalak Gobernuan.

## Barriola pilotan

Abel Barrioko ia urtebete behar izan du Eibarko Astelenan izan zuen lesiotik osatzeko, baina azkenean, hilaren 12an berragertuko da.



## Leitzako irakurleei abisua

TTIPI-TTAPAtik telefono deirik EZ baduzu hartu eta aldizkaria jasotzen segitu nahi baduzu, mesedez, deitu edo bete txartel honetan zure datuak, moztu eta bidali gure helbidera:

TTIPI-TTAPA | Anduetzeta, 12 | 31760 ETXALAR

Izen-Deiturak .....

Helbidea .....

Herria .....

Telefonoa .....

e-Posta .....

Karneta

Bankua

URTEKO HARPIDETZA: 15€

| Informazio gehiago: 948 63 54 58

| info@ttiipi.net



POLIZIA OPERAZIOA → ATXILOKETAK

# Baserri bat miatu du Guardia Zibilak azken aldiko atxiloketen harira

Aldi berean, Internet seinalerik gabe egon da herria

**Juana Mari SAIZAR**

Otsaialaren 18an, arratsaldean, Guardia Zibilak kontrolak jarri zituen herriaren sarreran, eta handik pasatzen ziren guztiak geldiarazi eta kotxeak begiratzen ibili zen.

Herrian ez ezik, mendialdean ere hainbat kotxe zeuden pistetan barna. Beti ere, Espainiako berri agentziaren arabera, bitarte horretan baserri bat miatu zuen, Guardia Zibilak due-la gutxi Gironan atxilotu zuen Jon Rosalesen neskalagun ohiaren etxebizitza. Berri agentziek zabaldu zuten,



ARTXIBOKO ARGAZKIA

## Mikel Olazabal eta Anartz Olano txukun pilotan

Mikel Olazabal eta Anartz Olano pilotariak ongi ari dira. Lehena bigarren mailako eskuz binakako txapelketan ari da Arrutirekin, eta hain ongi hasi ez baziren ere, denbora pasa ahala erritmoa hartu eta dagoeneko lau partida irabazi dituzte. Azkenekoan ez zuen Olazabalek jokatu, eskuetan arazoak izan zituelako, baina espero dugu laster jokatzeko ikustea. Anartz, berriz, Hernandorenarekin batera, Berria Txapelketan ari da eta aurrera segitzen dute txukun ari direlako.

miaketa 18:00etan hasi zuten eta 21:30ean

bukatu. Bestalde, aldi berean,

WiFi-ren antena seinalerik gabe egon da eta In-

terneterako sarbiderik gabe egon da herria hiru egunez.

## Hezkuntza eta kiroletarako laguntza

Hezkuntza eta kiroletarako dirulaguntza deialdia egin du Udalak, 16 urtez azpiko herriko neska-mutilentzat. Eskolaz kanpoko edozein ekintza arlo hauen barne egiten dutenek erreziiboak eta argibideak eraman beharko dituzte udaletxera. Laguntza kopurua berdina izango dute denek, eta gehienez 100 eurokoa.

## Sutarako egurra

Sutarako egurra ekartzeko epea hilabete honetan irekitzekoa da eta udaletxean apuntatu beharko da.

**edredoi fundak**  
**albomozak**  
**edredoi nordikoak**  
**ohe estalkiak**  
**maindireak**  
**mantelak**  
**kuxinak**  
**toailak**

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

**Merkealdiak**  
**Azkeneko aukerak**

Tafalla, 13 • IRUÑEA 948 230 634

# BAZTAN

SOKATIRA → MUNDUKO TXAPELKETA ITALIAN

## Munduko Sokatira Txapelketan azpitxapeldun izan da Amaiur

560 kilokoan kategorian lortu du zilarrezko domina

### Maite OTEIZA

Txapela ez, baina bai zilarrezko domina. Otsailaren 25ean hasi zen Munduko Sokatira Txapelketa eta han izan ziren Amaiurko kirolariak. 560 kilokoan lehiatu ziren eta baztandarrek finalera ailegatzea lortu zuten. Baina aitzinetik gogotik lan eginda. Izan ere, parra egin zuen Clonmany (Irlanda) taldearekin, eta biek 18 tantorekin akitu zuten. Kitarakorik ez zegoenez, talde bakoitzak eginiko faltak hartu behar izaten dira aintzat, baina horretan ere parra egin zuten. Beraz, talderik arinena zuena sailkatu zen bigarren postuan. Finalerdietan Ipar Irlandako Richhill kanporatu

zuten baztandarrek eta finalean Abadiño A (Bizkaia) izan zuten aurkari. Bi tiraldi gogor jokatu arren, bietan gailendu ziren bizkaitarrak.

600 kilokoetan ere aritu zen Amaiur baina lerro hauek idazterakoan ez genuen emaitzen berririk.

### Erratzutik Baigorriako bidea itxita

Erratzu eta Baigorri Izpegin barna lotzen dituen NA-2600 errepidea itxita egonen dago joan den otsailaren 22az geroztik, eta horrela egonen da apirilaren 15era arte, Nafarroa Behereko aldean, RD-949 errepidean egitekoak diren lanen ondorioz. Errepide mozketa lan egunetan egingen da, 08:15etik 11:45era eta 13:45etik 17:45era. Aste hondarretan errepidea zabalik izanen da.



ARGAZKIA: ORONOZKO ESKOLA

### Ikasleak kazetari eta soinu teknikari

Egunero telebista edo irratia pizten dugularik, irudiak eta soinuak sartzen diren gure etxeetan, baina seguraski noizbait gure buruari galdetu izanen diogu zenbaterik parte hartzen dute saio bat egiten edo zer lan ote dagoen aitzinetik... Ildo horretan, Xorroxin irratia bere estudio ibiltaria sortu zuen aspaldi, irratia gure herrietako ikastetxeetatik hurbilduz, eta haurrak bizpahiru egunez, kazetari eta soinu teknikari bihurtuz. Aurten ere Urdazubi-Zugarramurdi eta Baztango ikastetxeetan bi hilabetez dabil irratia ibiltaria, ilbeltzetik martxora. Tarte horretan, Urdazubi-Zugarramurdi, Baztan Ikastola, Ziga, Oronoz, Arraioz, Erratzu, Amaiur eta San Francisco Javier ikastetxeetan izanen da. Herri bakoitzean, FM 107,9an aditzen dira eskoletako saioak. Argazkian Xorroxin irratia Oronozko eskolan.

### Irurritako Gure kaiola elkartearen zuzendaritza berria

Irurritako Gure kaiola elkartearen, ilbeltzean egin zen urteko asanbladan, ondoko bi urteetako presidentea hautatu zen, baita bere laguntzaileak ere. Boto bateko aldearekin, Joxe M<sup>a</sup> Zelaieta Zaldubi aukeratu zen lehendakari izateko, Maxi Obregonoren aitzinetik. Joxe M<sup>a</sup>rekin batean, Jose Martin Zelaieta, Iñaki Garate eta Pello Urtsunek osatuko dute zuzen-

daritza, Pello Perotxena, Puentxo Bidegain, Miguel Bidegain eta Iñaki Zabaletaren ordez. Kargu aldaketa, beti bezala, afari batean egingen dute.

### Parisko Gourmand Saria Baztanerat

*I love verduras* sukaldeliburuak Parisko Gourmand Sariatik, munduko argazkirik hoberearen atalean, bigarren saria eskuratu du. Eta beraz, Iruritarat etorri dasaria, Xabier Landa eta Mai-

ka Gartiaren Gourmet enpresarentzat *-gourmet-image.com-* izan baita.

Sukaldaritzako literaturan, Pariseko Gourmand sariak, zineman Hollywooden ematen diren Oscarren balioak dira. Lehendakari Espainiako Sukaldaritzako argazkirik hoberearen saria lortu zuen liburu honek, eta horrek eman zion, munduko hoberearenekin lehiatzeko aukera.

Eskailerak igotzea... ez da oztopo!

behetik

Añorga-Ixiki, 14 behea  
T. 943 368 781  
671 073 888

www.behetik.com



plataformak • igogailu bereziak • aulki bereziak...



Sartu  
gure web berrian  
**WWW.SILOTITE.COM**



*Sila bolak  
egiteko  
plastikoa*



- Edozein belar klasetan erabilgarria
- Aukeran 500 mm eta 750 mmtan
- Zultatzeo gogorra eta tiramenduetarako sendoa
- Elastikotasun ezin hobea
- Memoria elastiko bikaina
- Ongi itsikitzen dena
- Baldintza atmosferiko guztietan erresistentzia onekoa eta UV egonkortasun handikoa
- Ingurumenarekin erasokorra ez den plastikoa

[www.silotite.com](http://www.silotite.com)

**SILOTITE**  
by Formigac



Silotite®. Segurtasunaren aukera

**AROZ-BERRI, S.A.**

Tel. 948 581 021 / 948 580 258 - Faxe 948 452 103

irurita@arozberri.com - N-121 B errepeidea, 46,7 kma - 31730 IRURITA

# BAZTAN

MARTXOAREN 8A → EMAKUME LANGILEEN EGUNA

## Emaztekien jardunaldiak antolatu ditu Gaztetxeak

Astelehena arte hitzaldi, film, tailer eta abar izanen dira

### TTIPI-TTAPA

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna izanen da martxoaren 8a, eta horren harira, hainbat ekimen antolatu dituzte Elizondoko Gaztetxean. Ortzirald honetan, martxoak 5, hasi eta astelehena bitarte egingen dira.

- Martxoak 5, ortzirala: 20:30ean, *Errepresioa sexista* da solasaldia.
- Martxoak 6, larunbata: 11:30ean, *Sexualitatea: berdintasunera eman gabeko urratsa* hitzaldia. 20:30ean, *Caramel* filmea ikusgai. Ondotik, eztabaida Marta Aristu psikologoak bideratuta.
- Martxoak 7, igandea: 11:00etatik 13:00eta-

ra, autodefentsa tailerra.

17:00etatik 19:00etara, *Norbere gorputzarekin topatu* tailerra.

- Martxoak 8, astelehena: 13:30ean, bazkaria eta sorpresa. Bazkari-joan nahi duenak aitzinetik eman behar du izena Intza ostatuan. 18:00etan kalejira Gaztetxetik abiatuta.

### Aroztegiaren inguruan ekitaldiak

Aroztegia... eta gero zer? plataformak antolatuta, *Aroztegia erokeria* izenarekin ekitaldiak izanen dira martxoaren 13an. 19:00etan bertso poteoa egingen da Intza ostatutik abiatuta, eta 22:00etan, Elizondoko Gaztetxean pintxoak izanen dira. Ordu berean, Meren bakarlariak bere saioa eskainiko du eta 23:30ean Kastaña eta Egurra ta Kitto taldeek kontzertua eskainiko dute.



ARGAZKIAK: G. MARITORENA/ A. DEL CASTILLO/ ONDIKOL

### Inauterirek eman dute aurtengoa

Zaila da 15 herrietako inauteriek utzi dutena lerro gutti batzuetan laburtzea, baina umore ona faltatu denik ezin erran. Ilbeltzeko azken asteburuan hasi eta otsailaren erdialdera arte izan zen non gozatua, eta horixe ikus daiteke argazkio-tan ere. Goikoa Arraiozko gazteena da, bigarrena Erratzukoa eta bertzeak Elizondoko mozzorro desfilekoak.

**ANTXITONEA**  
Trinketea

**Jatetxea - Ostalua**  
**Hotela - Trinketea**

**Menu Bereziak**

Braulio Iriarte karrika  
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

egoi bardot obregozo arkitektoa

679649789 elizondo - braulio iriarte 33, 1ºD - 31700  
948250371 inuñea - irabioko monastegia 62, 4ºC - 31011

MENDIALDE  
Jatetxea

T. 948 453 060 - AMAIUR  
www.mendialdea.com



AZPIEGITURAK → HONDAKINAK

# Oharrizko depuradoran tratatuko dira Arraiozko hondakin-urak

Horretarako 407.406 euroko inbertsioa egingen da

## TTIPI-TTAPA

Arraiozko hondakin-urak Oharrizen dagoen eta 1995az geroztik martxan dagoen depuradoran tratatuko dira. Eta horretarako nahitaezkoak diren desjabetzeak izendatzea premiazkoztat jo du Nafarroako Gobernuak. 407.406 euroko inbertsioa iragarri da eta horietatik %80 Toki Administrazio Departamentuak bideratuko ditu, eta gainerakoa herritarrek uraren zergak ordainduz ateratzen denarekin.

NILSAk gaur egun dauden bi deskarga puntuak bateratzea erabaki du eta ponpaketarako tresneria eta hondakinak depuradorara garraiatuko dituen hodiak eraikitzea. Horretarako Baztan ibaiaren ezkeraldera dauden hondakinak ponpaketa estazioa dagoen tokira eramateko ibaia gurutzatuko da. Gero, berriz hondakin-ura ezkeraldera bidaliko da, Oharriz aldera. NA-121B errepidea gurutzatu ondotik, errepidearekin eta gasbidearekin paralelo joanen dira ur zikinak Oharrizera.



ARGAZKIA: WWW.NAVARRA.ES

Arraiozko hondakin-urak garbitzeko Nafarroako Gobernuak esku artean duen proiektua.

## Parte-hartze zabala larunbateko Haur Kantari Jaialdian

Lur aretoan egingen da saioa 18:00etatik aitzinera

### TTIPI-TTAPA

Dagoeneko abian den Nafarroako Haur Kantari Jaialdien bigarren saioa Elizondoko Lur dantzalekuan egingen da larunbat honetan, hilak 6, 18:00etan hasita.

Baztango eta eskualdeko parte-hartze zabalaren izenak da: Elizondoko Leire Onsalo (*Zergaitikaitona*), Doneztebeko Agorreta Sara Apeztegia eta Nereeta Matxiñena (*Esaidazu*); Baztan Ikastolako 5. eta 6. mailako bi talde (*Non?* eta *Izarra*);



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Duela zenbait urte Doneztebeko Agorreta taldea Lurren kantari.

ra Aizpuru (*Duintasunez Eutsi*); Garbiñe eta Naiara (*Ilargia*); Doneztebeko Sara Apeztegia eta Nereeta Matxiñena (*Esaidazu*); Baztan Ikastolako 5. eta 6. mailako bi talde (*Non?* eta *Izarra*);

Baztango herrietako eskolen Xixo taldea (*Maite zaitudalako*); Lekaroz ikastetxeko bi talde (*Itxa - ropen hautsien kaxa* eta *Urrun izan arren*) eta Berako Jesusen Bihotzako hiru talde: Xantel

taldea (*Zaztoz Kantara*); Larun taldea (*Euskara da, kantua da*) eta Axuriak taldea (*Aitormena*). Lurren kantatu ez arren, Lerrakako Aitziber Irazokik (*Elkarrekin*) ere parte hartuko du bertze saioetan.

**BERA** Zure inguruak klase guztietako insektuz (xomorra, zinoarra, ormiorma, kukuxu...) eta orrotai xagutzuz garbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pipien tratamenduak

**GOIEKO** Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 597 • Zabalain, 42 A • BERA

**CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE** abokatua

Santiago, 59 2C • ELIZONDO  
T. 948 581 448 M. 630 354 818

**MENDI** ostatua

Santiago 25  
948 580 313  
ELIZONDO

# URDAZUBI/ZUGARRAMURDI

URDAZUBI → ZEHARBIDEA EZTABAIAN

## Zeharbidearen adjudikazioa bertan behera utzi du Epaitegi Nagusiak

Epaitegiak arrazoa eman die salaketa paratu zuten bizilagunei

**TTIPI-TTAPA/Koro-Margari**

Dantxarinearako zeharbideko urbanizazio lanen segurtasun eta osasun estudioen proiektuaren adjudikazioa bertan behera utzi du Nafarroako Justizia Epaitegi Nagusiak. Zehazki, 2007ko urriaren 10eko alkatearen ebazpena utzi du baliorik gabe eta honenbertez, arrazoa eman die salaketa jarri zuten bizilagunei. Honela, VS Ingenieria y Urbanismo SL enpresak 89.500 euro itzuli beharko litzioke Udalari. Salaketa jarri zuten bizilagunen ustez, «gaur egungo zeharbideak ez du trafiko arazoa moldatzen, horretarako saihasbidea behar da eta gainera, autoak zona komertzial jakin batera bideratzen ditu, bertze batzuk bazterrean utzi».

Epaitegiaren erabakia garrantzitsua dela uste dute bizilagunek eta proiektua ez litzatekeela egin behar. «Nafarroako Gobernuak legez kanpoko obra bat diruz lagundu du eta orain egia atera da».

### KONFORME EZ

«Gaur egungo zeharbideak ez du trafiko arazoa moldatzen, eta gainera, autoak zona komertzial jakin batera bideratzen ditu»

### BIZILAGUNAK

Salaketa paratu dutenak

### ESLEIPENA

«Adjudikazioa alkatebuzen bidez eman zen eta ez plenotik pasatuta, baina legez egin zen, hiru enpresa gonbidatu genituen eta bat ateraz irabazle»

**Santiago VILLARES**

Urdazubiko alkatea

Santiago Villares alkateak prentsan aipatu duenaren arabera, «adjudikazioa alkatebuzen bidez eman zen eta ez plenotik pasatuta, baina legez egin zen, hiru enpresa gonbidatu genituen eta bat ateraz irabazle». Erranzueñez, orain ezin zaio enpresari dirua itzultzeko eskatu «Administrazioa legez kanpoko aberastea izan litekeelako» eta bidea lehengora bueltatzeari dagokionez, «egiten ahal den eta egin behar den galdetu behar da, hobe-kuntza handia izan delako. Dantxarinearako



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

### Sueldegi aldera agertzen den bidexka oinezkoentzat egokitzen

Azketako aparkalekutik plazara doaien bidea arriskutsua da oinezkoentzat, zirkulazioa haundia delako eta zabaltasun eskasa duelako. Laister arazo hori arinduko da, Sueldegi gibelego aldera agertzen den bidexka konpontzen ari baitira. Larrak kendu, zabaltasun pittat gehixago eman eta harri-xabalezko eskaile-  
rak egiten ari dira. Apirilera zabalik egotea espero da. Argazkian herri-mutila ageri da, lurrean eman aitzin, harri-xabalak prestaten aritu baitzen.

den 23 komertzioetatik 20k parte hartu dute lanetan eta kasik 600.000 euro jarri dituzte».

### POLITIKOAK BISITAN

Dantxarinearako zeharbidea bisitatu zuten otsailaren 17an mugaz bi aldetako hainbat agintaririk. Villares alkatearekin batera, Atlantiar Pirinioako Kontseilu Oroko erreko presidenteorde Jean Jacques Lasserre; Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabidetako kontseilaria den Laura Alba, Herrilaretako zuzendari nagusi Jose Luis Etxebarri eta Kanboko alkatea eta Ezpeletako kontseilari orokorra den Vincent Bru izan ziren.

### Erakusketa Urdazubin

2011ko urtarrilaren 2ra arte berriz irekia izanen da Urdazubiko

klaustroan *Euskal pinturaren 50 urte* arte erakusketa. Gaur egungo euskal margolari garrantzitsuenen 300 artelan baino gehiago daude ikusgai. Asteazkenetik ortziralerara 14:00etatik 18:30era egoten da irekia; larunbatetan, igandetan, besta egunetan eta oporretan 11:00etatik 19:00etara.

### Zugarramurdiko elizan lanean

Zugarramurdiko elizaren zolak berezitasun eder bat dauka: etxe gehien izenak egurrez txertatuak agertzen direla, bakoitza hilobi baten neurriko eremuan. Denbora batean (banku luzeak eman aitzin) etxe-  
ko-andrea bere aulkia jartzen zen tokia erakusten du. Gauza da zolaren azpi-

ko arrastelak egoera txarrean eta aldatzeko beharrean daudela. Diru nahiko ez, eta zatika egingen da lan hori. Momentuan laurdena berritzeaz finitu berria dugu. Ea pittaka luze gabe zola guztia egitea lortzen den.

### Logroñora autobusa

Logroño hiriak halako «ospe beltza» du gure herriaren historian, duela 400 urte han zigortu eta erre baitzituzten hainbat herritar. Orduan gertatutakoari nolapaitako erremedioa paratu nahian, bi herrien arteko ekitaldiak antolatu dira. Horiertako lehenbizikoa Logroñon egingen da, martxoaren 9an, eta Udalak autobusa antolatu du hain duena harat gateko. Bidaia urririk da, eta izena museoa edo leizean eman behar da, martxoaren 4a baino lehen.

  
ttipi-ttapa  
info@ttipi.net  
(0034) 948 63 54 58

HERRIEN ETXEREN  
EDUKITZEA  
CAFÉ DE LA MAIRIE  
T: 0559542519  
Mazzen eta Vintropia  
SARA

ARMUA JATETXEA  
  
T: 948 299 131  
Ezpeletako errep. 3km  
URDZUBI



KIROLA → PAXAKA TXAPELKETA

# Frantziako paxaka txapelketaren finalak Saran jokatuko dira

Martxoaren 14an jokatuko dira Pleka trinketean

**Xan HARRIAGUE**

Martxoaren 14an paxakako jokalaririk onenak herrian izanen dira, aurten ere Frantziako txapelketako finalak Pleka trinketean jokatuko baitira. Lehen finala 10:00etan hasiko da eta ondotik jokatu-ko da bigarrena. Urte askotan bi talde nagusi izan badira bertzeen ondoan, azken urte hauetan maila orekatu da eta ziuraski final irekia izanen da aurten ere.

**Ihauteriak**

Ehunka izan dira aurten ere ihauteriekin bat egin duten saratar- rarak, batzuek mozorrotuz eta beste batzuek gazteak haien etxeetan errezibituz. Larunbatarekin preseski, etxez-etxe ibili ziren herriko 30 bat gazte, Elbarrun, Ihalar, Istilart

eta Lehenbizkaiko au- zoetan barna. Urte batzuetan giroa berotze-ko astia behar izan ba- dute ere, aurten ez du- te problemarik izan ha- sieratik bazterrak na- hasteko, beti ere zen- tzu eta umore onean.

Biharamunean ere giro aparta izan zen pla- zan. Urteak joan ahala gero eta jende gehiago hurbiltzen da. Aurten ai- patzekoa izan da pla- zara hurbildutako *Strunf* edo *Pottokien* taldea. Plaza urdinez margotu

zuen. Ohiturak atxikiz zantantzarra epaitu zu- ten, baita erre ere, urte guztian izandako zoritxarren errudun ze- lakoan.

Igande arratsean ihauteriak agurtu zituz- ten heldu den urte arte.



UTZITAKO ARGAZKIA

**Atxuri Urdin Gironan**

Atxuri Urdin Realeko peña Gironan (Katalunia) izan zen otsailaren 20an eta 21ean, Donostiako taldeak han jokatzeko baitzuen. Partida txarra ikusi omen zuten, baina asteburua ederki pasatu lagun artean. Larunbatean besta pixka bat egin zuten, igande goizean turismo pixkat bat eta igande arratsaldean ki- rola. Zoritxarrez Realak 0-1 galdu zuen, baina emaitzak ez zuen gogorki era- gin bertaratu ziren 20 lagunengan. Datorren urtean peñako kideak Bartzelona- ra edo Sevillara joatea aipatzen ari dira, beti ere Real lehen mailara itzultzen bada. Argazkian, peña Montivili zelaiaren aitzinean.

**LEIZEAK**

Euskal Herriko Leizeen Eguna igandean

**TTIPI-TTAPA**

**Zugarramurdiko** Leizea, Ikaburu (**Urdazu- bi**) eta Mendukilo (As- tiz-lekunberri) Nafa- rroan; **Sarako** Lezea Lapurdin; Arrikruz (Oñati) eta Ekainberri (Zestoa) Gipuzkoan; Pozalagua eta Koben- koba (Karrantza) Bizkaian. Hauexek di- ra Euskal Herrian anaiartutako zortzi lei- zeak. Eta igande hone- tan, martxoak 7, *Mu- garik gabeko lurpea* ekimenaren bidez eu- ren lehen jardunaldia ospatuko dute. Horre- la, aipatu leizeek sarre- ran %50eko deskon- tua eta bisita egiten dutenek asteburuko alojamendua hiru izar- reko Arantzazu San- tategia Hotelean eta zortzi leizeetarako doaneko sarre- ren zozketan parte hartze- ko aukera izanen du- te. Duela 2 urte sortu zen *Mugarik Gabeko Lurpea* proiektua lur azpiko ondarearen ezagutza bultzatzeko helburuarekin.

**MONTXO** OSTATUA

Dantxarinetik 2 km-tara

**ТАВАКО-ДЕНДА**  
**АНЗАН-БОРДА • УРДАЗУБИ**

Egunero irekia 10:30etik 02:30era

**VENTA PEIO**

Bera (Administratiboa) 71796 BERNA Tel 948 628 130 Fax 948 628 127  
 Dantxarinea 71732 URDUA Tel 948 597 388 Fax 948 598 948  
 Ibañeta 71796 BERNA Tel 948 628 718 Fax 948 628 306  
 Lantaka 71796 BERNA Tel 948 628 304 Fax 948 798 185

# SENPERE

**SORGINEN AUZIA → 400. URTEURRENA**

## Ustezko sorginen kontrako auzien Europako lehen oroigarria estreinatu da gaztelu aitzinean

40 000 euroko gastua sortu du Basterretxearen zizel lanak

**Franck DOLOSOR**

Txalaparta, bertsuak, aureskua, musika, dantza eta kantua... Denetatik izan da Nestor Basterretxearen zizel lanaren estreina egunean. Gazteluaren ondoan ikus daiteke oroigarri hau, gisa huntan Europan egin den lehena. Arte obra hunek omendu nahi ditu duela 400 bat urte Lapurdin epaitu ziren ustezko sorginak.

Eskoletako liburuetan agertzen ez den historia hau gogorat ekarri nahi izan du Lapurdi 1609-2009 elkarteak. Lapurdiko ondarea eta historia arrunt folklorizatuak direla uste du elkarte hunek eta beraz, memoria landu behar dela. Azken hilabeetan, animazio andana prestatu du gure arbasoen izena eta izana hobe ezagutu ditzagun eta horien artean Basterretxearen zizel lana. Aldi guziz aipatu da zehazki zer gerta-

tu zen Lapurdiko itsas hegiko herrietan, eta bereziki Senperen.

Nestor Basterretxearen zizel lana egina izan dadin eta gazteluaren aitzinean ezarria izan dadin, Herriko Etxeak bere laguntza eman du. Christine Bessonard andere auzapezak dio historia hau biziki interesgarria iduritzen zaiola. Bere erranetan, gogoan izan behar da, «senper-tarrak ez zirela akort orduko agintariekin, eta emazteak libreak eta arduratsuak zirela».

### GIPUZKOAN BIZI DEN BIZKAITAR BAT SENPEREN

Nestor Basterretxea Bermeon (Bizkaia) sortu zen 1924an. Zizelkari ospetsua izateaz gain, margolaria eta zinema zuzendaria ere bada. Frankismoagatik, gaztea zelarik Donibane Lohizunen bizi izan zen bi urtez eta gero Argentinan joan zen familiarekin, bere aita EAJ-ko kidea baitzen.

Basterretxeak bi mugimendutan parte hartu izan du: lehenik Ibarrola eta Oteizarekin, eta



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Nestor Basterretxea zizelkaria Herriko Etxean. Bere ondoan, Jean Michel Bedaxagar kantaria eta arotza, auzapeza eta Lapurdi 1609-2009 elkarteko lagunak.

### LANA URRIRIK

**Basterretxeak asmatu du obra eta Jean Michel Bedaxagar harotzak egin du lan osoan. Basterretxeak, baina, urrik egin du lana.**

gero Chillida, Zumeta eta Sistiagarekin. 1966an, *Ama lur* filma zuzendu zuen eta 12 urte geroago, Donostiako Zinemaldiko zuzendaria izan zen. Eusko Ikaskuntzak Lagun Onari saria eman izan dio bere ibilbidea goraiatzeko.

Basterretxeak ongi ezagutzen du aspalditik Lapurdin duela 400 urte gertatu ziren epaituen historia. Gertakari biziki hunkigarria iruditzen zaio eta lan handirik ez omen du izan oroigarria asmatzeko. Gazteluaren aitzinean ezarri den lanak sorginen erretzeen tokia irudikatzen du: egurrak eta arantzak, hau da, herri-



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

### Negu nahasia

Aurtengo negua ezegonkorra da arrunt. Iduzkia eta euria artean, elurra ere ikusi dugu zonbait aldiz Senperen, eta aspaldiko partez, aintzirako hondartza xuri xuria agertu da otsail erditsuan.

tarren sufrimendua. Basterretxeak asmatu du obra eta Jean Michel Bedaxagar arotz xiberrutarrak egin du lan osoa. Basterretxeak ez omen du xentimo bat ere irabazi lan hunekin. Zizel lanaren estreina egin aitzin, egun batzuk lehenago, Basterretxea Herriko Etxean

izan zen eta ideia paregabea aipatu zuen auzapeza eta kultura axuarentaren aitzinean: Herriko Etxeak gaztelua erosi behar duela museo bat egiteko. Ideia ona du darik gabe, jakinez gainerat, gaztelua saltzeko dela. Maisuaren hitzak ongi entzunak izan ote diren? Geroak erranen...

**suteia**  
115 96 11 741 11 741

**igogailuen instalazioa**

Erlategi Plaza, 8 bajo ELIZONDO (Na)  
Tel.-Fax: 948 452557 M: 649 699 820/810  
suteia@suteia.com



Gremio guziak koordinatuz eta proiektuaren arduraria haruz, zure igogailua instalatzen dizugu



## EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

## SORTZEAK

**Josu Larraiotz Altzuri**, Elizondokoa, ilbeltzaren 28an.  
**Xabier Bakedano Juanikorena**, Arantzakoa, otsailaren 12an.  
**Egoitz Arraztoa Korteia**, Elizondokoa, otsailaren 11n.  
**Liherr Fernandez Zubeldia**, Leitzakoa, otsailaren 17an.  
**Maialen Reyes Palomo**, Lesakakoa, otsailaren 18an.  
**Onintze Etxenike Toledo**, Berakoa, urtarrilaren 23an.  
**Lola Juanaberria**, Sarakoa, otsailaren 11n.  
**Erinn Cereze**, Sarakoa, otsailaren 4an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

## HERIOTZAK

**Pello Apeztegia Andresena**, Elizondokoa, otsailaren 11n, 68 urte.  
**Feliciana Ordoki Agirre**, Arantzakoa, otsailaren 11n, 81 urte.  
**Jose Mendiburu Goienetxe**, Azpilkuetakoa, otsailaren 15ean, 85 urte.  
**Pedro Irigoien Lertxundi**, Gartzaingoa, otsailaren 16an, 62 urte.  
**Ramona Uhalde Etxeberria**, Oronoz-Mugairikoa, otsailaren 17an, 71 urte.  
**Jose Luis Eraso Irigoien**, Oronoz-Mugairikoa, otsailaren 16an, 61 urte.  
**Timoteo Iribarren Agirre**, Erratzukoa, otsailaren 18an, 81 urte.  
**Teodoro Linares Gartzia Yimi**, Lesakakoa, otsailaren 19an, 66 urte.  
**M<sup>a</sup> Jose Eugi Jaunsaras**, Iruritikoa, otsailaren 19an, 87 urte.  
**Juan Perurena Narbarte**, Arizkungoa, otsailaren 20an, 79 urte.  
**Ines Elizalde Etxeberria**, Lesakakoa, otsailaren 20an, 85 urte.  
**Jacinta Eraso Alduntzin**, Doneztebekoa, otsailaren 21ean, 89 urte.  
**Jean Louis Elizagoien**, Sarakoa, otsailaren 6an.  
**Peio Echebert**, Sarakoa, ilbeltzaren 29an.



Grupo Tanatorio Taldea  
**IRACHE**  
 Maldaerrekak S.L.  
 Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04  
SAN JOSE BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59  
FUNERARIA BAZTAN  
TANATORIO BAZTANDARRA

Doneztebe 948 63 74 04  
SAN PEDRO BEILATOKIA

Leitza 948 63 74 04  
LEITZAKO BEILATOKIA



Grupo Tanatorio Taldea  
**IRACHE**  
 Maldaerrekak S.L.  
 Funeraria Baztan

Lesaka 948 63 74 04  
LESAKAKO TANATORIOA



**Mikel**  
**MARTIARENA BENGOTXEA**

Oiartzungoa, 2008ko otsailaren 19an

II. URTEURRENA

Gure gau ilunak argitzen dituen izarra buruan bueltaka dabilen irriaren oihartzunaren islada zu gure bihotzean beti altxatuko dugun lankidea izanen zara.

GOLDEA TAILERRA

Testosteronarekin positibo emateagatik bi urterako zigorra paratu zioten Patxi Vilari (Bera, 1975) 2008ko maiatzean. Berak jakin gabe, kutsatutako aminoazido batzuk hartu

zituelako izan zen. Denborarekin, ordea, epaitegiak arrazoa eman zion eta hortaz urte erdia laburtu zioten zigorra. Azaroaren 5etik lasterketetan lehiatu dezake, baina zail

dago kontua: taldea aurkitu ezinik dabil. 2008tik honat nola sentitu den, zer egin duen eta etorkizunera begira dituen ilusio eta erronkei buruz solastu zaigu Patxi Vila.

Patxi VILA | Berako txirrindularia

# «Ate guztiak ixten ez diren bitartean, entrenatzen segituko dut»

G. PIKABEA | BERA

«Zanpateko haundia» hartu zuen Patxi Vilak 2008ko maiatzean, testosteronarekin positibo eman zuela erran ziotenean. Bizitzak «inoiz» eman dion «kolperik haundiena» izan zen: «alde batetik, %90arentzat positibo eman duen bertze bat gehiago nintzela banekien eta zergatik izan zen jendeari ez zaio inporta eta hori gogorra da. Eta bertzetik, nire ibilbide guztia jokoan zegoela ikusi nuen».

Aminoazido batzuk hartu eta berak jakin gabe kutsatuta zeudelako eman zuen analisisan positibo. Gerora jakin zuen egiaz zer gertatu zitaion: «nik hartutako aminoazido batzuetan testosteronatik eratorritako zerbaiten trazak zeudela jakin nuen. Nik 4,09ko balorea eman nuen eta muga 4koa da». Aminoazido horiek behin baino gehiagotan hartuak zituela aitortu digu, eta ez zekiela kutsatuak zeudela, «ordura arteez nuen arazorik eduki». Baina normalean eguerditan hartzen zituen aminoazidoak, egun hartan atzendu eta gauean hartu zituen eta biharamun goizean joan zitzaizkion etxera kontrola egitera: «aminoazidoak eguerdian hartu izatera, ez litzaiteke deus ere pasatuko eta kontrola egitera be-



ARGAZKIA: G. PIKABEA

Patxi Vilak oraindik badu lasterketetan lehia hasteko itxaropena.

randuago etorri balira ere ez, baina...».

Psikologikoki «bi urte hauetan hamar ute zahartu dela» erran digu. Momentuan onartu ez arren, orain konturatzen da «laguntza psikologikoki profesionala» ere ongi etorriko litzaiokeela, «uste dugu gai garestinera ateratzeko, baina laguntzarekin gauzak errazago pasatuko nituen». Inguruan ere «denetarikoa jendea» somatu duela kontatu digu: «eta jende mordoskak ondotik alde egin du». Bi urte hauek zerbait erakutsi badiote, hauxe izan

**PSIKOLOGIKOKI GOGORRA**  
«Inguruan denetarikoa jendea somatu dut, eta jende mordoskak ondotik alde egin du. Bi urte hauek zerbait erakutsi badiote, hori inorretaz ez dakidala deus izan da. Etxekoek eta lagunmin batzuek zer egiten duten badakit, baina hortik aitzinera deus ere ez».

omen da: «ez dakidala deus inorretaz. Etxekoek eta lagunmin batzuek zer egiten duten badakit, baina hortik aitzinera deus ere ez».

Mantso joan den prozesuak, ordea, arrazoa eman dio azkenean. TAS Kirola Epaitegiaren arrazoa emanda positibo emateagatik bi urteko zigorra zena urte erdia murriztu diote. Hortaz, azaroaren 5az geroztik lehiatzeko moduan dago. Alde horretatik, «ilusioz eta gogoz» dagoela adierazi digu, baina taldea aurkitu ezinik. «Krisia txirrindularitza-

ere nabaritzen da, eta gainera horrelako gauza bat gertatzeak badu eragina». Zigorra bete eta epaitegiak arrazoa eman badio ere.

Talde bila ate «aunitz» jo dituela azaldu digu: «batzuek argi erran didate ezetz. Bertze batzuek aitzakia batzuk paratuz ezetz erran didate, eta batzuek atea erdi irekia utzi didate. Ate guztiak ixten ez diren bitartean entrenatzen segituko dut eta espero dut baten bat bilatzea». Zail ikusten du kontua, «kirolaz gain, politika eta interesak» tartean daudela koan baitago.

Egoerarekin ezin, txirrindularitza betiko uztea ere pentsatu omen du inoiz Vilak, eta «duela ez aunitz», gainera. Amesgaiztoa «oraindik ez dela akautu» dio, baina ez dago geldirik egoteko. Horregatik segitzen du egunero entrenatzen eta triatloietan ere badabil, ederki gainera. Espainiako neguko triatloi txapelketan brontzeko domina lortu du berriki, eta Reinos Campoo Triatloi Zurian txapeldun izan da. Talderik agertu ezedan, udara begira ere, triatloietan parte hartzea du buruan. Gainerakoan, proiektu andana ditu esku artean: Pedalier aldizkaria, txirrindulariak entrenatu... Eta noski, alaba ttikia zaindu.



AIZKORA → APUSTUA DONEZTEBEN

# Mindegiatarrek irabazi dute zortzi kanaerdiko ebakitzeko apustua

Ikusminaren lekuko dira saldutako 910 sarrerak

TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

Ikusmin ikaragarria sortu zuen otsailaren 21ean Doneztebeko pilotalekuan Malerrekako lau lagunek egindako aizkora desafioak, sekula baino zale gehiago bildu baitzen Hilario eta Migeltxo Mindegia osaba-ilo-ben eta Joseba Andiarena *Bordazuri* eta Juanito Mariezkurrena *Arroxeneren* kontrako apustua ikustera. Guztira 910 sarrera sal-

du ziren eta ikusleak milatik gora.

Lauen artean, Hilario zen plazan ibilitako bakarra. Euskal Herriko Bigarren Mailako txapela ere lortutakoa da, baita hainbat apustutan ibilitakoa ere. Donezteben, 51 urterekin oraindik sasoiko dagoela erakutsi zuen. Hiru gazteek ere lan txukuna egin zuten.

MINUTUKO ALDEA

Zortzi kanaerdiko mozteko lana hartu zuen bikote bakoitzak eta 3.000 euro paratuak zituzten jokoan. Lan erdiak eginak zituztenean, minutu erdiko aldea



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Goian apustuko protagonistak, epaileak ondoan dituztela. Behean, ezkerrean Mindegiatarrek aizkora, Miel laguntzaile dutela, eta eskuinaldean Mariezkurrena –aizkora– eta Andiarena, Luismari Belarra laguntzaile dutela.

atera zieten Mindegiatarrek, eta bukaeran, berriz, minutu eta segundo batekoa. Lanak akitzeko 15 minutu eta 19 segundo behar izan zituzten Mindegiatarrek,

eta 16 minutu eta 20 segundo Andiarenek eta Mariezkurrenak. Garai-pena, beraz, osaba-ilo-ben alde.

Hortik haratago, Malerrekako aizkora zale-

tasuna asetzeko hitzordu ederra izan zen lau aizkolariek eskainitakoa, eta batek baino gehiagok aipatu omen zuen horrelakoak hilabetero egin behar direla.

MOTORRA → ESPAINIAKO CROSS COUNTRY TXAPELKETA

# Proba bakarraren faltan, sailkapenean lehenbizikoa da Julen Uharte motor gidaria

Azken proba igande honetan jokatu da Huelvan

TTIPI-TTAPA | URDAZUBI

Espainiako Cross Country Txapelketan fin

dabiltza eskualdeko motor gidariak. Julen Uharte urdazubiarra eta Xabi Etxegarai lesakarra dira horietako bi, senior B mailan ari direnak.

Hiru probetan erabakitzen da aipatu txapelketa, eta bi dira jokatu-takoak. Lehena urtarri-



UTZITAKO ARGAZKIA

Julen Uharte urdazubiarra jaun eta jabe izan zen Guadalajaran jokatu-tako proban.

laren 24an egin zen Bar-tzelonako Castelloli herrian, eta Julen Uharte hirugarren helmugaratu zen, Xabi Etxegarai, berriz, bosgarren. Otsailaren 21ean bigarren jardun-

naldia jokatu zuten Guadalajaran, eta honetan urdazubiarra nagusitu zen, eta lesakarra zazpigarren gelditu zen.

Proba bakarra gelditzen da eta oraingo sail-

kapenean lehena da Uharte (45 puntu), eta laugarrena Etxegarai (29 puntu). Txapelketa, beraz, igande honetan, martxoak 7, Huelvako Villarrasan erabakiko da.

## martxoak 4-17

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net) edo 948 63 54 58

<p><b>Erakusketak</b></p>  <p><b>IRURITA</b>   2010.02.16/04.04</p> <p><b>Narciso Rotaren margoak ikusgai Olarin</b></p> <p>Donostian jaio eta Iruñean bizitu zen margolari honen olio, akuarela eta esmalte margolanen hil ondoko erakusketa ikusgai dago Olari jatetxean.</p>	<p><b>Ateraldiak</b></p>  <p><b>DONEZTEBE</b>   2010.03.13</p> <p><b>Xabierera ateraldia antolatatu du Erreka elkarteak</b></p> <p>Goizeko 5etan abiatuko da aurreten ere Erreka elkarteak antolatatu duen autobusak. Iruñetik Xabiererako 42 kilometroak oinez eginen dituzte erromesek.</p>	<p><b>Solasaldiak</b></p>  <p><b>BERA</b>   2010.03.04</p> <p><b>Menopausia aitzinetik eta ondotik ezagutzeko</b></p> <p><i>Pre-post menopausia, emakumearen metamorfosi eta berpiztea</i> solasaldia eskainiko da martxoaren 4an, 17:00etan Toki-Ona Institutuan.</p>
--	--	--

**Erakusketak**

IRURITA

**Narciso Rotaren margo erakusketa**

**Apirilaren 4a bitarte** Narciso Rota margolariaren olio, akuarela eta esmalte lanen erakusketa izanen da Olari jatetxean.

URDAZUBI

**Euskal pinturaren 50 urte erakusketa**

**2011ko urtarrilaren 2a arte** ikusgai izanen da Urdazubiko monastegiko klaustroan gaur egungo euskal margolari eta eskultore garrantzitsuenen 300 artelan. Asteazketatik ortziralerara 14:00etatik 18:30era. Larunbat, igande, besta eta opor egunean 11:00etatik 19:00etara.

LEGASA

**Herriko argazki zaharren erakusketa**

**Martxoaren 6 eta 7an** herriko argazki zaharren erakusketa eginen da eskolako gimnasioan, 15:30etik 18:30era. Ehun argazki bildu dira.

**Kontzertuak**

ELIZONDO

**Bizardunak Lur dantzalekuan**

**Martxoaren 13an** Bizardunak taldeak kontzertua eskainiko du gauerditik aitzinera Lur dantzalekuan. Sarrerak: 9 euro aitzinetik eta 11 euro takilan.

LESAKA

**Musika eskolaren kontzertua****Martxoaren 12an**

udaletxeako pleno arretan, 17:30ean.

**Ospakizunak**

DONEZTEBE

**Xabierera autobusa Errekaren eskutik**

**Martxoaren 13an** 05:00etan abiatuko da Erreka elkarteak antolatutako autobusa Doneztebetik Iruñera. Handik Xabierera oinez. Izen ematea Titi Ostatuan edo 948 450271 telefonoan (bazkideek 12 euro, ez direnek 15).

ELIZONDO

**Emaztekiek jardunaldiak Gaztetxean****Martxoaren 5ean**

*Errepresioa sexista* da izeneko solasaldia 20:30ean.

**Martxoaren 6an**

*Sexualitatea: berdintasunera eman gabeko urratsa* solasaldia 11:30ean. *Carame* filmea eta ondotik eztabaida Marta Aristu psikologoak bideratua 20:30ean.

**Martxoaren 7an** au-

todefentsa tailerra 11:00etatik 13:00etara eta *Norbere gorputzarekin topatu* tailerra 17:00etatik 19:00etara.

**Martxoaren 8an**

bazkaria eta sorpresa 13:30ean. Izen ematea: Intzan. 18:00etan kalejira Gaztetxetik abiatuta.

ELIZONDO

**'Aroztegia erokeria' kontzertuak****Martxoaren 13an**

19:00etan bertso poetoa Intzatic abiatuta. 22:00etan pintxoak eta Meren bakarlarria Gaztetxean. 23:30ean Komando Kastaña eta Egurra ta kitto taldeak Gaztetxean. Antolatzailea: Aroztegia... eta gero zer?.

LEITZA

**Emakumearen Mundu Martxaren harira**

**Martxoaren 5, 6, 8 eta 12an** hainbat ekitaldi antolatatu ditu Leitzaldeko Bilgune Feministak: bideo-emaldia, kontzentrazioa, muralak, afaria... Xehetasunak 37. orrialdean.

SARA, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDI

**Euskal Herriko leizeen eguna**

**Martxoaren 7an** Euskal Herriko anaiartutako leizeen eguna. Xehetasunak 45. orrian.

**Hitzaldiak**

BERA-ETXALAR-IGANTZI

**Menopausiaren inguruko solasaldiak****Martxoaren 4an**

*Pre-post menopausia, emakumearen metamorfosi eta berpiztea* solasaldia eskainiko da Toki-Ona institutu-  
an 17:00etan.

## PROPOSAMENA

LEITZA

**Emakumearen Mundu Martxa dator**

Martxoaren 12an ailegatuko da Leitzara Emakumeen Mundu Martxa, *Urratsak emanez hartu martxa feminismorantz* izenburupean. Dantzariak, Jeiki Abesbatzak eta bertsolariak harrera eginen diote 20:30ean eta gero afaria eta kontzertua izanen da Torrean. Aste osoan hainbat ekitaldi antolatatu du Leitzaldeko Bilgune Feministak.





### Martxoaren 8an

Etxalarako Kultur Etxean menopausiaren inguruko hitzaldia 17:00etan.

### Martxoaren 11n

Igantziko Biltokin solasaldiak 17:00etan.

## Tailerrak

ELIZONDO

### Pintura tailerra

**Urtariletik ekaina arte** pintura tailerra egiten ari dira Arizkunenean, 17:00etatik 21:00etara. Apuntatzeko: 609 329618.

## Bertsoak

ATARRABIA

### Finalisten izenak jakinen dira

**Martxoaren 7an** Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalistak ezagutuko dira 3. finalurrekoaren ondotik. 17:30etik aitzinera Indurain Anaiak kiroldegian: Aimar Karrika, Oier Lakuntza, Arkaitz Goikoetxea, Eneko Lazkoz, Jon Elizetxe eta Jon Barberena.

## Mendi ateraldiak

BERA

### Larun Ttikiren ateraldia

**Martxoaren 7an** Oletarat irteera. 09:30ean abiatu lamoteneatik eta Ibardinera kotxez.

## Zinema

LEITZA

### Ostiral eta igandetan

**Martxoaren 5ean eta 7an** *El secreto de sus ojos* filmea ikusgai.

**Martxoaren 12an eta 14an** *Avatar* ikusgai.

Ostiraletan 22:30ean eta igandetan 19:30ean. Sarrera: 6 euro.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

## ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

### Liburua



Juan Rena, clave en la conquista de Navarra

**PEDRO ESARTE**

Pamiela, 2010

**J**uan Rena, clave en la conquista de Navarra (1512-1538) bere azken liburuan, sobera ezagun den pertsonaia honi buruzko azalpenak ematen ditu Pedro Esarte idazle elizondarrak. Esarteren ustez, Fernando Katolikoa erregeak Nafarroa okupatu zuenean, ezin zezakeen Rena kapilaua zeritzona baino laguntzaile hoberik topatu. Hain zuzen, orduko informazio zuzenik onena Renak berak bildu eta Nafarroako Artxibategi Orokorrean gordea dagoenak eskaintzen digu. XV. mende erditsutik 1512ra bitarte eskubide, jabego, Administrazio eta kargueri buruzko hain dokumentazio guzti dagoenean, nola eskuratu zuen Renak hainberitze informazio, hori lortu ahal izateko inolako kargurik betetzen ez zuela kontuan hartuz? Renak erabili egiten zuen informazio hori, menpekoari bortxa egiteko eta agintaria jakinaren gainean jartzeko. Inteligentzia zerbitzua koordinatu zuen, zelatarriak ordaindu eta agintariei edo erregeari berari dirua aurreratzen zien. Itzalean, Nafarroako konkistatzaile izan zen Juan Rena.

### Musika



Gauaren zaindaria

**POTEMKIN**

Txintxarri Management, 2009

**K**orazatuak sokak askatu ditu eta irmo doa nabigatzen rockaren itsasoetan. Behaturiko bi urteko geldialdiaren ondotik, Potemkineko makineria martxan jarri da eta arrikutsua bezain hilgarria den album bat karrikatatzeko gai izan da. Baxujole eta taldearen sortzailetako bat izan den Joxe Mari Azpitarte untzitik lehorreratu eta denbora bat bila eman ondotik, Alexis Alonso izan da oinarri erritmikoa osatu duen arduraduna eta Mikel Fernandez gitarrojolea ere talderatu da. Bi kide berri hauek, beteranoak diren Iker Martinez de Zuazo, Iban Idigoras eta Aixibar Urteagarekin batera, azken urteetan Euskal Herrian sortu den rock&roll talde kitzikagarrietako bat osatzen dute. Guzti hau, *Gauaren zaindaria* izeneko beraien iraupen luze-ko bigarren lan honetan erakusten da. Bertan taldearen nortasuna indartzen dute, aitzineko lanekin nahiko markaturik eta bideraturik zegoena.

### Internet



Euskal Herriko toki aldizkariak batera

**WWW.TOKIKOM.COM**

**E**uskal Herriko tokiko aldizkari batzuk elkartu egin dira eta marka bateratua sortu dute: Tokikom. Eta horrekin batera Interneteko atari berria eratu dute: [www.tokikom.com](http://www.tokikom.com). Herri aldizkariaren talde izaera azpimarratu, eta bide batez, bakoitzaren eremutik kanpora indartzea da Tokikom markaren helburua. 20 aldizkarik hartu dute parte Tokikom definizioan, eta tartean dago TTIPI-TTAPA. Denak euskarazko hedabideak dira eta hurbileko informazioa lantzen dutenak. Topaguneko hedabideak dira, eta irakurle kopuruaren aldetik, liderrak dira bakoitza bere eremuan. Herri informazio guztia toki bakoitzan jasotzen du [www.tokikom.com](http://www.tokikom.com) web orriak, 20 herri aldizkari atari berean eskura, beraz. Tokikom osatzen duten hedabideetako albisten titularrak ageri dira web horri horretan, eta bakoitzaren gainean klikatuz gero, jatorrizko webgunera joateko aukera izanen da.

## Nire aukera



**Aitor APEZTEGIA**  
Sunbillaiko anbulantzia gidaria

## Zakurrarekin edo gabe, mendian ibili eta kirola egitea gustatzen zait

**A**nbulantzia gidari bezala egiten du lan Aitor Apeztegia sunbilla-darrak eta horrek urteko plangintza aitzinetik prestatzen uzten dio, «badakigu zein egunditugun libre eta horren arabera moldatzen gara». Duela hiru urte oilagor ehizian Nafarroako txapelidun suertatu zen eta orain ere, ahal duenean «bere zakurrarekin mendira joatea» gustatzen zaio, «gero eta afizio gehiago dut, hori dut gogoko eta urritik otsaila bitartean barkazioak eta egun libreak horretarako hartzen ditut». Denboraldia akitzen denean ere, «kirola egitea aunitz gustatzen zait, zakurrarekin ez bada bakarrik mendira atera, lasterka, mendiko bizikleta...». Familiarekin «uda partean hondartzara, eta neguan, posible bada, landetxeren batera» joatea gustatzen zaio. Gainerakoan, lruña aldera atera eta emaztea eta haurrekin pintxo batzuk hartu, buelta bat eman... izaten dute plana. «Garai batean zine- eta kontzertuetara gero joaten ginen».

**ETXEBIZITZAK**  
salgai

**BERA.** Pisua salgai. 3 logela, jantoki osatua eta sukaldia balkoiarekin. 2 logelek ere balkoia dute. Gasa eta berokuntza zentrala. ☎948 631381/697 436845/ elvetearra@aol.com.

**ANZABAL**  
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisua, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdian**

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

**ZUGARRAMURDI**

- Baserria salgai 80.000 metro<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.  
- Etxe adosatuak bere lurra-ekin salgai.

Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581459  
anzabal@anzabal.com

**BERA.** 80 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela eta trastelekua. Berogailua. Dena berritua. Aparkaleku pribatua. ☎657 715243 / 657 799953.

**LESAKA.** Etxebizitza salgai. ☎609 477277/618 188300.

**BAZTAN.** 105 m<sup>2</sup>ko pisu mobleztatua salgai, behoko solairuan. Aukera ona. ☎670 410556.

**LEITZA.** Herri erdian 3 logelako pisua salgai, egongela, sukaldia eta bainugela. Berogailua gas naturalarekin. Zaharberritua. 5. solairuan eta igogailuarekin. 210.000 euro. ☎679 321333.

**ORONOZ.** Etxea salgai. 5 logela, 3 komun, sukaldia, egongela eta trastelekua. ☎677 072437.

**ETXALAR.** Lizaietako parajea zaharberritzeko borda salgai, lur eremuarekin. ☎661 121540.

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@ttiipi.net edo www.ttiipi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

**NARBARTE.** 107 m<sup>2</sup>ko pisua salgai, 17 m<sup>2</sup>ko gara-jea eta 100 m<sup>2</sup>ko baratzearekin. Eraikin berean da goen 65 m<sup>2</sup>ko lokal komertziala ere salgai. Pisua 3 logela, sukalde-jantokia, egongela eta despentsa ditu. Berogailuarekin. Hegomendebaldera orientatua. ☎646 021262.

**BERA.** Pisua errentan emateko. ☎606 022378/609 209295.

**ZIZUR NAGUSIA.** Pisua errentan emateko. 3 logela, egongela, komuna, sukaldia eta aparkatzeko plaza. ☎610 731298 (deitu 20:00etatik 22:00etara).

**ETXEBIZITZAK**  
erosi

**ARANTZA.** Borda erosi-ko nuke. ☎653 122074.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan eman

**DONEZTEBE.** Pisua errentan ematen da. Berogailuarekin eta mobleztatua. ☎628 045374.

**BERA.** Itzea karrikan pisu mobleztatua errentan emateko. 2 logela, argi -taria eta berogailuarekin. ☎653 015877.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan hartu

**BERA.** Pisua errentan hartu nahi da. ☎620 361964.

**LESAKA.** Etxebizitza edo pisua errentan hartu nahi da. Zaharberritu behar bada, horretarako prest. Erostea aukera. ☎609 477277.

**ETXEBIZITZAK**  
konpartitu

**BERA.** Pisu bat konpartizeko norbait nahi da. ☎649 161830.

**EZKURRA** aldean base-rra bateko pisua konpartizeko. Bikoteak ez dira nahi. ☎650 452851.

**GARAJEAK/LOKALAK**  
salgai

**LESAKA.** 20 m<sup>2</sup>ko lokal komertziala salgai. Albis-tur 43. ☎659 609678.

**IGANTZI.** Lokal komertziala errentan edo tras-pasoan emateko. Estetika zentrua edo ile-apaindegirako aproposa. ☎663 881813.

**LANA**  
eskaintzak

**SARA.** Urtxolajatekxan esperientzia duen sukaldaria behar da. ☎(0033) 559 541525/686 561525.

**ARIZKUN.** Señorío de Ursua hotolean lan egiteko jendea behar da. ☎948 453500.

**LANA**  
eskariak

**Emakume** bat asteburuetan sukaldari laguntzaile edo fregaderan ariko litzateke. ☎686 911146.

**MOTORRAK**  
salgai

Seat Marbella salgai, ga-

**SANTESTEBAN Tailerrak**

TRAFFIC 1.6 DGI 110CV  
4 plaza - 2007koa - 11.200 km

TRAFFIC FURGON 1.6 DGI 100CV  
2007koa - 22.400 km

ETA GAINERA  
KANGOO FURGON 1.9 D  
2005 urtekoa - 35.000 km

PEUGEOT BOXER  
FURGON 2.8 125 CV  
2005 urtekoa - 125.000 km

TRAFFIC 1.9 DGI 110CV  
4 plaza - 2007koa - 44.000 km

DONEZTEBEKO RENAULT-en KOTXE IA BERRITAN SEKULAKO ESKAINTZAK

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA  
(otsailaren 12tik 19ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 50,00 € (+2,00)

**Zerri gizena**  
1,100 € kiloa. (+0,040)

**Zerramak:**  
0,400€ Kg/bizirik. (+0,040)

**BEHIKIA**

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal

**Extra** 3,92 (=)

**1.koa** 3,62 (=)

**2.koa** 3,02 (=)

**Urruxak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,02 (=)

**1.koa** 3,72 (=)

**2.koa** 3,22 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**  
urruxak 130,00 (=)  
idixkoak 210,00 (=)

**Aretze nabarrak:**  
urruxak 108,00 (=)  
idixkoak 130,00 (=)

**Zaldikoak:** €/k  
Sortuberrak: 2,70/2,80  
Zaldi-behorrak: 1,55/1,69  
**Bildotsak:** €/k  
6-8 kilokoak: 6,20/7,00  
8-10 kilokoak: 4,90/5,30



solina. SS-AT matrikula. 74.000 kilometro. 900 euro. ☎680 983577.

**Renault Grand Space** 2.2 BTI autoa salgai, 150 CV, 2004koa. Extra aunitz (larruzko eserlekuak, sabai panoramikoak, sei plaza, GPS, gortinak leiho guzietan, klimatizagailua...). ☎619 988830.

**Peugeot 306 TD** autoa salgai. 90 zaldi. Xuria eta hiru atekoa. Alpine CD irratikargadorearekin. Llantak. ITV pasatu berria. NA-AW. 154.000 kilometro. Egoera onean. Prezioa: 1.800 euro. ☎677 453441.

**MOTORRAK**  
tailerrak

**MENDAUR MOTOR**  
948 450333 • DONEZTEBE

**SUZUKI**  
(gasolina eta diesela)  
**MITSUBISHI**  
(luze eta laburrak)  
**TURISMOAK**

**ANIMALIAK**  
salerosketak

**Behia** salgai, emari. Erosleak aukera izanen du bi behiren artean aukeratzeko. Biak ernari. ☎948 510533.

**DENETARIK**  
Salerosketak

2,5 metroko 250 pikete eta 2 metroko bertze 200 pikete salgai, gaztainak. ☎647 276744.

**Sukalde ekonomika kalfaktora** salgai. egoera onean. ☎620 520010.

Gutti erabilitako **garbigailua** salgai. ☎948 610865/617 595853

**DENETARIK**  
galdu-aurkituak

**LESKA**. Hartzaren burua duen pelutxe-manta galdu da. Haurrentzako garrantzitsua. ☎636 694852.

# urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,34€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez




Aunitz urtez **JAIONE!** Martxoaren 5ean 26 urte! Muxu haundi haundi bat eta ongi pasa eguna! Badakizu nor garen, ez?



**OIHAN TELLETXEA SEIN** igantziarrak urtea bete du otsailaren 23an. Aunitz urtez familiaren partetik.



Aunitz urtez moñoña! Ailegatu da zure eguna! Ongi pasa eta ea afarian txanpain tragoxkara gonbidatzen gaituzun! Muxuuk. Kaxkarrak.




**ENEKO OSKOZ ETXEPARE** etxeko tikiak 2 urte bete ditu otsailaren 16an. Zorionak pottoko familiaren eta Laika, Bat eta Lotiren partetik. Muxu haundi bat.



Zorionak **MATTIN** pottoko! Muxu aunitz zure familia osoaren partetik.



Irurirako **NAROA ELIZANTZIN ALZUARTEK** 6 urte bete ditu otsailaren 24an. Aunitz urtez eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik eta berexiki Julenen partetik.



**NAHIA ELIZONDO MARIEZKURRENA.** Zorionak gure **NAHIATXORI!** Otsailaren 26an muxu haundi bat Donamaria aldera zure lehen urtebetetzean, Sunbilla eta Ezkuratik.



**ILARGIK** urteak beteko ditu martxoaren 1ean. Zorionak sorgintxo eta muxuuuuuu huuuundi bat Oihan, atta eta amaren partetik.



Leitzako **EGO BIDART ZABALETAK** urtea beteko du martxoaren 16an. Zorionak xagutxo eta muxu asko familia guztiaren partetik.



Aunitz urtez **JOXEMA!** Zuk ere urteak martxoaren 16an beteko dituzunez, zuk aukeratu noiz ekarri gosaria!



Goizuetako **UXUE AIZKORBE HERRERAK** otsailaren 21ean 3 urte bete ditu. Zorionak eta muxu asko familiaren partetik.



Zugarramurdiko **IONEK** 16 urte beteko ditu martxoaren 7an. Zorionak panpina, maite zaitugu.



**AIDA,** naranja tartean bizi den gure nexka pulitak 9 urte bete ditu otsailaren 27an. Muxu aunitz.



**MADDALEN KLOP FERNANDEZEK** martxoaren 21ean urtea beteko du. Zorionak eta mila muxu aita-txi-amatxi eta Eneko eta Estixu osaba-izeben partetik.



Elizondoko **GARAZIK** 7 urte beteko ditu martxoaren 16an. Zorionak eta muxu potoloak familiaren partetik.




**GARAZI UBIRIA GARMENDIAK** 5 urte bete ditu otsailaren 24an. Zorionak familia guztiaren partetik, eta berexiki Miguelen partetik.



Amatxi **AMPAROK** eta **LAIDAK** urteak beteko dituzte martxoaren 3an eta 4an. Zorionak familia guztiaren partetik.




**JULEN JUANKORENEA** sunbildarrak 13 urte beteko ditu martxoaren 12an. Zorionak Lesaka, Igantzi eta Sunbillako familiaren partetik.



**NINBE URTXEGI URRA** igantziarrak 7 urte beteko ditu martxoaren 9an. Zorionak denen partetik, baina bereziki aita-ama, Luken eta Danelen partetik.



Izeba **Estik** urteak beteko ditu martxoaren 12an. Zorionak izeba! Etxetik ere zorion handi bat Anjel, Ninbe, Luken eta Danelen partetik.



**LAIDA TABERNA URRA** lesakarrak 2 urte beteko ditu martxoaren 4an. Zorionak eta muxu erraldoi bat atta eta amaren partetik.



**LIDE SAN SEBASTIAN ARRAZAK** 3 urte beteko ditu martxoaren 21ean. Zorionak hurbil eta urrun dagoen familia guztiaren partetik. Muxu pila!



Otsailaren 26an Erratzuko **AIMAR REKARTE ITURRIARIK** 2 urte bete ditu. Zorionak familia guztiaren partetik, batez ere, bere arreba Uxueren partetik.




**DOLORES ALBIZUK** urteak beteko ditu martxoaren 16an. Zorionak eta muxu haundi bat Ane, Orti eta Lexuri zure tikiien partetik.



Mutiko guape-ras honek martxoaren 16an urteak beteko ditu. Aunitz urtez eta gosari goxoaren zain geldituko gara!



Arantzako **AINHIZE SAN JUAN TABERNAK** martxoaren 6an 2 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu aunitz sorgintxo! Etxeko guztien partetik eta berexiki Enauten partetik.



Etxalarko **KOLDO BIZENTE MAIAK** martxoaren 7an 7 urte beteko ditu. Zorionak familiaren eta bereziki Jone eta Ikerren partetik.

# ZORIONDU

## Internet bidez

### www.ttipi.net

*erraza da*



# TTIPI-TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!



**DESKONTUAK**  
**ZOZKETAK**  
**ALDIZKARIA**  
**MUSUTRUK**

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

- 512 ALEKO IRABAZLEAK**
- \* ONDDO TA PUNTO KAMISETA  
Maite Blanco | Bera
  - \* KALOTXA LOTEA  
Maite Erregerena | Ituren
  - \* PUNPALAPLAN CD + DVD  
Manuel Ormart | Elizondo
  - \* CAMELOT 2 SARRERA  
Saioa Mitxelena | Bera
  - \* MARTIKO LOTEA  
M<sup>a</sup> Rosa Mendiburu | Elizondo
  - \* BETAGARRI CDA  
Peio Apezetxea | Etxalar

# ZOZKETAK ZORIONAK

ttipi-txarteldun guzien artean  
zozketatuko dira sari hauek



**2 SARRERA**  
**ARTIC**  
**IZOTZ JAUREGIRA**  
[www.hieloartic.com](http://www.hieloartic.com)



**LOTEA**  
**KALOTXA**  
**OPARIAK ETA**  
**OSAGARRIAK**



**KAMISETA 1**  
**ONIN ART**  
[www.oninart.com](http://www.oninart.com)

**2 LIBURU**  
**IBAIZABAL**  
[www.ibaizabal.com](http://www.ibaizabal.com)



## TTIPI-SASKIA

- TTIPI-TTAPAKO POLTSA  
GURE GORPUTZA JOKOA
- JUEVES VERBENA LIBURUA
  - DEABRUAK TEILATUETAN KAMISETA
  - PIRRITX ETA PORROTX POSTERRA
  - BIZI BIZI ARRANOA DVD



## DESKONTUAK

Denda hauetan eta aunitz gehiagotan!  
ERABILI ZURE TXARTELA!

**CITIZ**  
%10 konponkeretan

**nafarpres**  
%10 liburu eta ikas materialetan  
testu liburuak eta bielnak ezik

JUAN J. PIKABEA  
%10 giltza marka batzutan ezik

**LIBURUSKALIA**  
%10 materialan

**SANSIÑENA**  
CITROËN  
%10 olio aldaketan



# KRISI-KONTRAKOGAUA

MARTXOAK

6

LABURBATA

LURJOYAK:  
DJNASH

01:00 - 02:00 Dohainik eta 2x1

02:00etatik aintzinerara 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

# BIZAR DUNAK

MARTXOAK

13

LABURBATA

LURJOYAK:  
DJNASH  
DJJULEN

00:30 9€ Aurretik 11€ Bertan

Salmenta puntuak: Elizondo: Anbitonea, Txokoto | Lesaka: Abxaspi | Iruña: El Infiernito

# KEN ZAZPI

MARTXOAK

20

LABURBATA

LURJOYAK:  
DJNASH  
DJJULEN

00:00 12€ Aurretik 15€ Bertan

Salmenta puntuak: Elizondo: Anbitonea, Txokoto | Lesaka: Abxaspi | Iruña: El Infiernito

# KRISI-KONTRAKOGAUA

MARTXOAK

27

LABURBATA

LURJOYAK:  
DJNASH

01:00 - 02:00 Dohainik eta 2x1

02:00etatik aintzinerara 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

 Lur



WWW.LURELIZONDO.COM